




Kilometroak 01  
Beasainen

Ausa-Gaztelu:  
Nafarroako  
erreinuko  
mugaldeko  
gotorlekua

Pello  
Arruabarrena  
traste zaharrak  
bilduz



VAC  
VAC



**BERTAN** S.L.

**EGUR BILTEGIA**

VACSOL - WR<sup>®</sup> TRATAMENDUA EGURRARENTZAT



*Ireki berria!*

**OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA**

Ibai-Ondo industrialdea, 5 pab. 18 area

ITSASONDO

PITZADURA,  
PIPI eta  
HEZETASUNAREN  
AURKAKO  
TRATAMENDU  
FIDAGARRIA

Tel. /Faxa: 943 163 102



# IDIAZABALEN ETXE ADOSATUAK



- 3 logela.
- Lorategia 66/99 m<sup>2</sup>.
- Kalitate goreneko materialak.  
Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza.
- Irakaskuntza zentrua,  
Polikiroldegia,... inguruan.

ETXEEN ENTREGA DATA: 2001. urteko 4. hiruhilekoan

**686 414 901 - 943 450 721**



INMOBILIARIA

**adarra**

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA  
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

## **orkli, s.coop.**



### Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)  
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxes: (943) 88 73 08



## Non zer

- 7 TXANDAKA:** Antonio Berasategi  
**8 AHOLKUA:** Miren Etxezarreta  
**9 KATE MOTZEAN:** Takolo  
**10-11:** Ausa-Gaztelu  
**12-13:** Santa Fe jaia Zaldibian  
**14:** Jaietarako autobusa

### 15-23 KRONIKAK

**LAZKAO 15:** Txorizugarrien lehiaketa. **SEGURA 16:** Ikasturte berria. **ORDIZIA 17:** garagardoa lepo. **ORMAIZTEGI 18:** Euskal Herriko arraza autoktonoen erakusketa. **MUTILOA 19:** Silobolen plastiko bilketa. **LEGORRETA 19:** Juan Mari Jauregiri omenaldia. **ATAUN 20:** Mendi-ibilaldi neurtua. **BEASAIN 21:** Asmuberen ekintzak. **IDIAZABAL 22:** Ofizialki elkartuta. **ZEGAMA 23:** Ehungintza ikastaroa. **EZKIO-ITSASO 23:** Film grabaketa.

### 24-25: AGENDA

### 26-27: DEBALDEKO IRAGARKIAK

### 28-29: ZAHARRAK BERRI: Pello Arruabarrena

### 30: FOTO ZAHARRA: zaldibiarak.

## Ikastolen aldeko jaia:

# 2001eko Kilometroak Beasainen

2001eko urriaren 7an, Gipuzkoako ikastolen aldeko jaia, Beasainen ospatuko da. Beasaingo Ikastolak antolatuko du, 25. urteurrena ospatuko duen Kilometroak 01 jaia. 1977an, Beasainen egin zen lehenengo Kilometroak.

Dagoneko buru-belarri ari dira lanean. Egoitza prestatu dute, Beasaingo Euskadiko Kutzaren gainean dagoen bulegoan. Ordutegia: 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Lan-talde ezberdinak ere osatuak dituzte. Beasaingo Ikastola ikastola txikia izanik, goierritar guztiei dei berezia egin nahi die lerro hauen bidez, Kilometroak antolatzeko. Igor Elorza ormaiztegiarra izango da Kilometroen koordinatzailea.

Ikastolarik berriena da Beasaingoa. 1996-1997. urtean sortu zen. Inbertsio handiak egin behar izan dituzte lokalak erosi eta egokitzen. Kilometroetan bildutako dirua lokal berriak ordaindu eta orain arteko inbertsioei aurre egiteko erabiliko da.

### Duela 25 urteko izpiritua

Alderdi ekonomikoaz gain, izango du beste helbururik 2001. urteko Kilometroak. Duela 25 urteko izpiritua berpiztu nahi dute beasaingarrek, ikastolen mugimendua aldarrikatu nahi dute. "Gaur egun festaren zentzua indartu da horrelako jaietan, eta ez festaren zergatiaren zentzua. Azpeitin zentzu horri heldu diote. Hau da, ikastolak,



*Igor Elorza ikastolako irakasle ormaiztegiarra izango da Kilometroen koordinatzailea.*

giza mugimendu bat dira, nagusiki guraso mugimendu bat, eta gertuko ONG (Gobernuz Kanpoko Erakundea) bat garela esango genuke. Euskararen aldeko gizarte mugimenduak dira ikastolak, nagusiki, euskalduna, euskaltzalea, guraso eta irakasleena, eta batez ere etorkizuna bideratzeko mugimendu bat", argitu digu Tere Irasorza Ikastolako zuzendariak.

"Duela 25 urte Kilometroak antolatu zutenen ametsaren ondorioa gu gara. Gure eginbeharra orain, datoren urtekoa antolatzeaz gain, datozen 25 urtekoa irudikatzea eta gure seme-alabak perspektiba horrekin hezitzea da", gaineratu du.

**GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA** Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea  
 Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19  
 E-mail: goierritarra@topagunea.com

**Zuzendaria:** Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu **Publizitatea:** Argider Mujika **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Eudene Albizu, Agurtzane Bikuña, Koldo Zubeldia, Iñaki Gurrutxaga, Inko Mujika, Laida Oiarbide, Iñaki Ugalde, Aitziber Murua, Miren Etxezarreta eta Antonio Berasategi. **Azaleko argazkia:** Manuel Vasco Rodriguez.

**Fotokonposizio eta maketazioa:** GOIERRITARRA. **Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)  
 Tirada: 8.000 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76  
 GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria**



### 128 urteko zigor eskaera Goierriko sei gazterentzat

Idoia Garmendia, Idoia Mendizabal eta Ekain Mendizabal ordiziarrei, Iñaki Zabalo zeraindarrari, Aritz Zeberio beasaindarrari eta Aitor Aseginolaza idiazabaldarrarentzat, 128 urteko zigor eskaera egin du Entzutegi Nazionaleko fiskalak, zenbait kale erasotan parte hartzeagatik. Gertaerak izan zirenean adin txikikoak ziren Idoia Mendizabal ez beste bostak, baina helduen legedia aplikatu zieten atxiloketak gertatu ziren unetik. Seiak kartzelan egonak dira denboraldi batez, baina fidantzak ordainduta kalean daude.

Idoia Garmendia, Idoia Mendizabal eta Ekain Mendizabal 1998ko urtarrilaren 31n atxilotu zituen Ertzaintzak Idiazabal, ustez ertzain baten etxeari eraso ziotelakoan. Lau egunez inkomunikatuta eduki ondoren, epailearen aurrean ere inkomunikatuta deklaratu zuten eta inkomunikatuta espetxeratu zituzten. Idiazabalgo gertaeren eta atxiloketen ondoren, beste hiru lagunak atxilotu zituzten.

Ekain Mendizabalentzat 29 urte eta 7 hilabete ko kartzela zigorra eskatu du fiskalak, ustez bost ekintzatan parte hartu izanagatik. Idoia Mendizabali, 25 urteko zigorra eskatzen du fiskalak, Idiazabalgo ertzainaren etxeari eraso egin ziolakoan. Idoia Garmendiari ere, ertzain beraren etxeari eraso egitea leporatzen diote eta 19 urte 11 hilabete ko kartzela zigorra ezarri nahi dio fiskalak.

Aritz Zeberiori hiru erasotan parte hartu izana leporatzen dio fiskalak eta 19 urte eta 7 hilabete ko zigorra eskatzen du. Iñaki Zabalo bi erasotan parte hartu zuelakoan dago fiskala eta 14 urte eta 11 hilabete ko espetxealdia eskatu du. Aitor Aseginolazarentzat azkenik, 9 urte kartzela zigorra eskatzen du fiskalak, ustez edukinontzi bat eta auto bat erretzeagatik.

### Pakito Garmendiarentzat 12 urte kartzela zigorra

Urriaren 2an Auzitegi Nazionalak eman zuen Pakito Garmendia ETA kidearen aurkako epaiketaren epaia: 12 urteko kartzela zigorra. Fiskalak 38 urteko zigorra eskatzen zuen ordiziararentzat.



### Irizar kooperatibak Enpresaren Bikaintasunari saria jaso du European


Irailaren 28an jaso zuen Istanbulen (Turkian) Ormaiztegiko Irizar autobus lantegiak, Europa mailan enpresa batek eskura dezakeen aitortpen gorenari: EFQM elkartek (European Foundation Quality Management) ematen duen Enpresaren Bikaintasunari saria. Enpresaren kalitate osoa bermatzen du sari honek. Sei hautagai zeuden sari hau jasotzeko; Volvo, Nokia, British Telekom, Opel eta Irizar.

Gestioan, kalitatean, produktuan, bezeroekin, zerbitzuan... enpresak arlo guztietan duen kalitatea saritzen du Enpresaren Bikaintasunari sariak. Aurretik dena den, kalitateari ematen dioten beste hainbat sari jasoa da Irizar: Besteak beste, ISO 9001 (produktuaren kalitatea bermatzen duena); eta EAEn ematen den Enpresaren Bikaintasunari ematen zaion urrezko Q-a.

### CAFek araztagia jarri du ke emisioa kontrolatzeko

Beasaingo CAF enpresaren altzairutegiko labe elektriko tximinitik ateratzen den kea murrizteko helburuarekin, araztegi berria jarri du martxan. Araztegi horri esker, %90 gutxitzen da kea.

IHOBERekin (Eusko Jaurilaritzaren Ingurumen Kudeaketarako Elkarte Publikoa) ingurumena kudeatzeko sistema hitzartua dauka CAFek, bi helburu zehatzekin. Batetik, ingurumen kudeaketarako sistema ezartzea; eta bestetik, ISO 14.001 kalitate ziurtagiria lortzea.



# ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

**ALTZAIRUZKO ATEAK:**  
AUTOMATIKOAK,  
BASKULANTEAK,  
MARATILDUNAK,  
STANDARRAK,  
ETA ABAR.



## Belar-bolen plastiko bilketa urriaren 17tik aurrera

Udako atsedenaldiaren ondoren, urriaren 17an berriz hasiko da silo-bolak egiteko erabiltzen den plastikoaren bilketaren kanpaina berria. Goimen Elkartearen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Goierriko udalen arteko ekimena da eta zerbitzu honen iazko emaitzak oso onak izan zirelakoan (urtarrila eta maiatza bitartean 20.000 kilo bildu ziren), 2000ko urritik 2001eko maiatzera arteko egutegia prest dago. Hileko 3. asteartean egingo da bilketa. 2000. urtean: urriak 17, azaroak 21 eta abenduak 19. 2001. urtean: urtarrilak 16, otsailak 20, martxoak 20, apirilak 17 eta maiatzak 15.

Herri ezberdinetan udalek aurrez egindako itxituretan egingo da bilketa. Plastikoa, bezperan, astelehenean, atera beharko da. Berziklatzeko garaian sokak arazoak sortzen dituela eta, sokarik ez ateratzea eskatzen da.

### Bilketa lekuak

**Altzaga:** Abalia auzorako bidegurutzean. **Arama:** Herri sarreran. **Ataun:** San Martinen, mediku etxe atzean; Lauztierrekan, Arratiñe bidegurutzean; Urkillaga gainean; Ergoiena auzoan eta Arratetan, Agerrerako bidegurutzean. **Beasain:** Garinen, Etxeberrieta bidegurutzean; Arriaranen, Iturritza bidegurutzean; Ugartemendi auzo sarreran; eta Beasainmendir, hilerrirako bidegurutzean. **Ezkio-Itsaso:** Uribar aldera harteko bidegurutze parean, errepide zahar aldean. **Gabiria:** Korta jatetxe inguruan, Kortzu azpikoan (autobus geltokian) eta Etxeberringo zubian. **Gaintza:** Mendizabal baserri ondoan eta Agerre bidean, plazuelan. **Idiazabal:** Olazagibel baserrian, Benta Txikin, Olariaga baserrian, Katea auzoan, Urritikoetxe baserrian, Gurutzeta baserri inguruan eta Korta baserrian. **Itsasondo:** Zelatxo aparkalekuan. **Lazkao:** Lazkaoendi auzoan, Iztueta bidegurutze aldamenean. **Légorreta:** Esnaola auzorako sarreran, edukinontzi ondoan; eta Légorreta Zahar aldean, bidegurutzean, edukinontzi ondoan. **Mutiloa:** Herri sarreran, eta Kortzu aldean, bidearen bukaeran. **Olaberria:** Errekalde auzoan, Ertzille inguruan; Agerre baserri inguruan; Iurre aldean, Bengoetxeako sarreran; Borda baserrian eta Ojarbin, Iranzuagan. **Ordizia:** Arramendi baserrian. **Segura:** Laiotz aldean, Iturriberri inguruan; Lilikun, Armaola ondoan; Kortaberri auzo sarreran; Barbarin, Arrizabala baserrian; eta Madalena aldean, Telefonica ondoan. **Zaldibia:** Saturdin, ermita inguruan; Olakosain, Biosola bidegurutzean; Arkakan, Aierdira hartzeko bidegurutzean; eta Gaintza aldea hartzeko bidegurutzean. **Zegama:** Apeadero bidegurutzean eta Kaleko bailaran, Zupiaur baserri ondoan. **Zerain:** Zabalegiko kanpan eta Barbari auzoan, Basozabal bide barrenean.



### Espainiar Estatuko kazetariak Goierri ezagutzuz

Irailaren 28an eta 29an, Goierri eskualdea ezagutzen izan dira El Mundo, El Pais, El Periodico eta Avui egunkarietako kazetariak. Gure eskualdeak turismoari begira dituen eskaintzak ikusi eta dastatu dituzte. Eguraldia dena den ez zuten oso lagun izan. Gaintzan bazkaldu ondoren ateratako argazkia da, Goiturreko ordezkariekin eta Ordiziako alkatearekin batera.

### Gazte bulegoa

Udako ordutegi bereziaren ondoren, urriarekin batera, ohiko ordutegia izango du Ordiziako Gazte bulegoak: astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 19:00etara.

Gazte bulegoak bide batez, bertan egin daitezkeen karneten berri eman digu:

**Ikasleen nazioarteko karneta:** 14-29 urte bitarteko gazteentzat. Prezioa: 700 pezeta.

**Gazteen nazioarteko karneta:** 14-25 urte bitartekoentzat. Prezioa: 700 pezeta. Nortasun Agiria aurkeztu behar da.

**Aterpezaleen nazioarteko karneta:** Prezioak: gazteak, 500 pezeta (Gazte txartelarekin 250); helduak 1.000 pezeta; familiarentzat 3.000 pezeta eta taldekoa, 2.000 pezeta.

### Gorka Beloki

Lazkaotar txirrindulariak profesionaletarako jauzia emango du datorren denboraldian. Festinan arituko da Joseba Beloki anaiarekin batera.



**ZUBIZARRETA  
ETXEGINTZA S.L.**

Gudarien Etorbidea, 5 -1.A ORDIZIA  
☎ 670 888 244 - 943 888 244 ☎

- ✕ Monumentu historikoen berritzea
- ✕ Karean iztukuak
- ✕ Pintura mineralak karean eta silikatoan
- ✕ Zarpeatu proiektatuak eta talotxatu finak
- ✕ Kapa bakarra
- ✕ Barruko eta kanpoko lanak

### PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,  
umeen, bikoteen  
eta sexologi  
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN



## Urruzuno literatur saria: Goierriko idazle gazteen erakusleio

Beste behin ere, lau beasaindar gaztek, Urruzuno Literatur Lehiaketan gailentzeak eskaintzen dien sariaz gozatzeko egokiera izan dute. Manu Lopez, M. Jose Olaziregi, Arantxa Urretabizkaia, Joxe Mari Satrustegi eta Josu Lartategik osatutako epaimahaiak 390 lanen artean 20 hautatu ditu, tartean lau beasaindarrenak direlarik. Partaidetza eta kalitate bikaina beraz, Euskal Herri osora hedatutako gazte literatur lehiaketa entzutetsuenean.

Egun, liburu eta egunkarietako zutabeetan begitandu ditzakegun Harkaitz Cano, Urtzi Urrutikoetxea, Gariñoit Berasaluze, Iñigo Iruretagoiena, Aitor Sarriegi eta Jon Benito esaterako, urruzunotarren leihatila zeharkatuta iritsi dira euskal orrien ateetara.

Goierri berriz, Daniel Ferrero, Unai Baztarrika, Irati Goikoetxea eta Ane Azurmendi dira bihotz-begien argiari jarraiki Innsbruck, Trieste, Klagenfurt, Ljubljana, Venezia eta Milanen berriz, larrosa hostoz lurrindutako zorion bidea urratzeari ekin diotenak.

Danielek 'Maite Bengoetxea begira zegoen' lanarekin eta Anek 'Zaharrak berri' izenburupean gorpuztutako eleberriarekin eraiki asmo dute izenetik izanerako zubia. Unai eta Irati oster, 'Etenaren trilogia' eta 'Kolorak, bizitzaren arima' eztimamiz hegaldatu dira poesiaren ortzemugan.

Dani, Unai, Irati eta Anek beste hamasei adiskiderek batera, Austria, Eslovenia eta Italiako izadiaren literatura dosiak zainetaratzen dituzten bitartean, Alkartasuna Lizeoko eta Loinazpe eta Txindoki Institutoetako hormek, harro

dantzuzkete idazlegai berrien errailetako garraisi muttuak.

Zuen bertsoak bizitza eta bizitzaren handitasuna ermatzen dituzte, zuen ahapaldiak poeta hilezkorren taupada galduak bihotzeratzen dizkigute, zuen hitzek desorekan orekatzen diren sentimenduak irudikatzen dituzte; zuek, izan zaretelako, biharko eguzkiak argi dago gaurko zeru oskarian...

Ekin eta jarrai argiaren seme-alabak, brontzeko ametsetan zorion hutsezko purpurak ehotzen; idaztea, pentsatu eta sentitzeko modurik eraginkorrena baita.

Maite Bengoetxearen begiradapean, zaharrak berrituz, kolore biziez korapilatu bizitzaren arimari darion etenaren trilogia. Nahi izatea aski da ahal izateko, utopia, bete arte da utopia.

*Ilunik gabeko gauean,*

*Trumoiak*

*Jo du*

*Ortzia!*

*Ametzen ameslaria*

*Ekaitz Goikoetxea 'Mekola'*

## Indar okupatzaileak Alde Hemendik

Estatu frantziar zein espainiarrek Euskal Herriarengan ezartzen duen jazarpen politikala, azken mendeetan gure herriaren izatea ukatu eta baldintzatzen duen errealtate bat da. Herri bakar baten zati-keta administratiboa eta bi estatuen arteko banaketak, kultura eta hizkuntzaren kontrako politika suntsitzaileak, atzerriarrak zaizkigun bizi-modu eta proiektu politikoen inposizioak, Euskal Herria herri bezala desagertaraztea dute helburu.

Denbora askoan zehar, etsaiak bere eskura dituen baliabide guztiak erabili izan dituzte helburu hori lortzeko; bai-

na denbora guzti horretan gure herria eusteko gai izan da eta tinko defendatu du herri bezala dagokion subirautea.

Harro egon behar genuke zigortzen gaituen etengabeko errepresio bortitzaren aurrean amore eman ez dugulako, eta harro baita ere askatasun egarria bizirik iraun arazi duten eta zuten guztiengatik. Ez dago Euskal Herria ixilaraziko duen errepresio polizial eta militar nahikorik.

Adieraztea eta pentsatzea debekatu digute, atxilotu gaituzte, jo gaituzte, torturatu gaituzte, kartzelaratu gaituzte, erail gaituzte, baina zutik eta tinko jarraitzen dugu, lehenengo eguneko indar, erabaki eta konbikzio berdinarekin.

Euskal Herriarentzat salbuespen egoera ezartzeak ez du gatazka hau konponduko. Kontrol polizial itogarria salbuespenezko legearen erabilera, ideiak libreki adierazteko debekua, eraikuntza nazionalaren alde lan egiten duten mugimendu sozial eta politikoen deuseztatzea, 14 urteko gazteen gartzeleratze eta kriminalizazio errepresio bakar baten aurpegi desberdinak dira.

Oinarrizko eskubide zibilen mugaketak eta Euskal Herriaren eskubideak defendatzen dituen proiektu politikoen debekuak, argi eta garbi erakusten du hemen ez dagoela demokraziarik. Ze demokrazia eskaintzen digute bi estatuko zapaltzaileek, beraien inposizioa gauzatu ahal izateko, gure lurretan 14.000 polizial behar baldin badituzte?

Gaur inoiz baino gehiago, garbi eduki behar dugu, beraien sistema atzerriarra armen indarrez inposatzen diguten kanporatzean soilik iritsiko dela demokrazia Euskal Herria. Subirautea ez digute emango ezerren truk, borrokaz soilik lortuko dute.

Horregatik indar okupatzaileak Euskal Herrikan kanporatzeko lanean dihardugu, askatasun demokratikoaren alde lanean dihardugu, adierazpen askatasunaren alde lanean dihardugu, lege atzerriar eta terroristen kontra lanean dihardugu, azken finean Euskal Herria eraikitzen lanean dihardugu.

Urriaren 6 eta 7an izango diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dugu: Urriaren 6an, 19:00etan, konzentrazioak herri guztietan eta 20:00etan eskualdeko manifestazioa Ordiziako plazatik. Urriaren 7an, Barakaldon nazio manifestapena, 17:00etan, Superkuartelik ez lemapean.

*Goierriko Amnistiaren Aldeko Batzordea*

## Eskerrik asko Lurdes Auzmendi

2000ko irailaren 23an Donostiako manifestazioaren ondorenean, zuk komunikatu irakurritako gezur nabarmenengatik eskertzen zaitut. "Armen kontrako armarik gabeko garaipena", zenion. Hori irakurri edo entzundakoa nahi duten guztiak erraz ulertuko dute gezurra dela.

Zuk bazenekien hura irakurtzerakoan, teilatuak, helikoptero eta ertzainez, armadaz zaindua zeundela; herriko mutilak borondatearen kontra behartu egiten dituztela armada espainola egitera; horien zerrendak egiten laguntzen ez badie, herrietako alkateak zigortu egiten dituztela; militar, guardia zibil eta polizial guztien gastuak ordaintzeko inposizioak ordaintzera obligatzen dutela herritarra, eta hori dena Euskal Herriari jabegotza indarrez kentzeko.

Horiei demokrazia eta bakea deitzen diozue. Hori gezurra dela ez al dakizu?

*Patxi Otaegi (Donibane Lohizune)*



## Esan bai Euskal Herriari Denok Miarritzera

Datorren astean Europar Batasuneko estatu buruek gailurra Europako herri zaharrenean ospatuko dute; Euskal Herrian, Miarritzen konkretuki.

Paradojiko da, Europar Batasunaren etorkizunaz, bere etorkizuna erabakitzea ukatzen zaion, herri zahar honetan hitz egitea. Miarritzen datorren ostegunetik aurrera ospatuko duten gailurrak mezu garbia bidaltzen digu euskaldunoi herri honen eskubide politikoak ukatzen jarraituko dutela estatu frantziar eta espainiarrek.

Honen aurrean euskaldunok bide bakarra dugu: borroka. Hemen Kantauri itsasoaren itsasertzean askatasun egarriz bizirauten duen nazio bat dagoela eta gure etorkizunaz euskaldunok soilik, erabakitzen duguna errespetaraziko diegula estatu zapaltzaileei.

Azkenik, euskal herritarrei datorren 12, 13 eta 14an Miarritzera joateko gonbitea egiten diegu eta bertan burutuko diren ekimenetan parte hartzeko, batez ere 13an eguerdiko 2etan eta 14an eguerdiko 12etan burutuko diren manifestazio nazionaletan.

*Goierriko ezker abertzalea*

## Autorik gabeko eguna(k)

**A**urten ez da egin, baina, lasai. Iritsiko da hona ere eta, datorrenean ez bada, apustu hurrengoan antolatu baietz gurean ere Goierriko udalek "automobilik gabeko eguna".

Hau komeria! Lehenagokoek, zer erremedio, moldatu behar, nola-hala, autorik gabe. Gero, autorik gabe ezin bizitzen ohitu ginen eta, orain, autorik gabe ibiltzen ikasi behar. Aurrerapena? Lelokeria galanta?

Ez naiz ni hemen autoak ekarri dituen onura guztiak banan-banan azaltzen hasiko; ez dago lekuri nahikoa. Baina, autoak utzi dituen morrontza guztiak lerrootara laburbiltzea ere lan zaila litzateke; gorrotagarrienetako bat aipatzearen, horra, autoen morroi diren gizontxoen handi uste eta fanfarroikeria; sartuko zaizkizu bere kotxearekin edozein ate zulotaraino, bihurtuko dituzte espaloiak aparkaleku, ez ikusiarena egingo diote pasatzeko lehentasuna duen oinezkoari; eta goizero Beasaina ezin sartuan, ilara luzean zain daudela, madarikatuko dituzte udaltzainak, ertzainak eta artzainak.

Iritziak iritzi, kontua da, badatorrela moda berria iparraldetik eta, beharbada, harrokeriak alde batera utzi eta ikasten hastea izango genuke onena. Behin, hementxe, Sasieta mankomunitatea zaborrak ito ez gaitzan egiten hasia zen lan ederra eskertu nuen. Orain, ez dakit nori, autoek jan ez gaitzaten zer egin pentsatzen hasteko eskatzera nator.

Garestiago gertatuko dela? Zaila? Ezina? Ez dakit, baina hori ikusteko dago.

Eta, ikusitakoetatik ikasten hasteko, esango dut, hor ikusten ditudala Legazpiko Patrizioreneko langileak txintxo-txintxo autobusaren zain lanera joateko; ezinbestean, enpresak ipinita, jakina. Ezin ote dira, era beretsuan, gauzak mugitzen hasi-sindikatuak, udalek, auskalo nork-goizeroako kotxe zalapartarik gabe, autobusak hona-hara industrialdeetara abian jartzeko?



**Antonio  
Berasategi**

## Bota bertsoa



**Aitzol  
Munduate**

## Internet

Argazki porno eta jokuak ni naukazue lekuko, gisa hontako tentazioei nork egiten die uko? Hainbeste leku arrarorekin ez naiz ondo moldatuko, diru gehiegi ordaindu arren minutu eta orduko, edozer gauza lortu liteke tekla zapaldu orduko.

Geroa nola ote dagoen jarri ezker begira, etxetik ere atera gabe inbentu honen harira, txorixo mutur eta letxugak interneten jira-bira, jadanik inor ez da joango Ordiziako ferira, ta atso zaharrak kotileatzen "txat"-en ibiliko dira!





**Miren Etxezarreta**

*Muguet loradenda*

Lorearen bizi-zikloak eta ongarriztatzeak edo indartzeko zein lur zainketa egin behar diren adieraziko ditut tarte honetan.

## Bizi-zikloak

Zure landareak urtebete bizirik irauten badu, ez kezkatu horregatik, gerta liteke bere bizi-zikloa urtebetekoa izatea.

Landareak aukeratzera-koan, kontuan eduki behar dugu lau bizi-ziklo daudela:

- **Urtekariak:** Urtero erein behar direnak. Beraien prozesu begetatibo bakarrean hiltzen dira. Hauek oso zainketa sa-

murra izaten dute eta egokiak dira lorategietarako.

- **Biurtekariak:** Bi urte irauten dute. Lehenengo hostotu egiten dira eta bigarren urtean loratu, gero hiltzeko.
- **Bizikorrak:** Erraboila edo bulbo, tuberkulu edota errizomatik jaio-tzen direnak. Lurretik kanpo aldera azaltzen den landarea urtero hiltzen da, baina lur azpian mantentzen denez, urtero berrian lorak ematen ditu.
- **Iraunkorrak:** Bi urte baino gehiagoan bizi diren zurezko enbordenak. Garai aldaketetan hostoak erori egin daitezke.

## Ongarriketak

Urtean behin, gehienbat

udazken erdi edo bukaera aldera, egokia da landare handietan, larrosak edo zuhaitzaren enborearen bueltan, lurra altxatuz eta simaurra botaz edota algaz eta lupuluz nahastuta ongarritzea. Lurra gozatu eta aberastu egiten da.

Bi motako ongarriketak daude: organikoa eta minerala. Ongarri organikoa samurra da lortzen:

- **Lurrustela:** hostoak, hondakinak eta simaurra erabil daitezke. Ongarri pastilak gaineko lur azalarekin nahasteko edota lur barruan sartzeko ere erabil daitezke.
- **Hostoetakoa:** Uretan desegin edo urtuta erabiltzen da. Honela hostoetatik hartzen du behar duen ongarrria. Spray edo ureztontziarekin ere busti daitezke.

## Lehiaketa

### Galdera

#### Nongoa da Tere Irastortza idazlea?

Erantzuna urriaren 16ko bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

**Saria Tere Irastortzaren 'Izen gabe, direnak' liburua eta GOIERRITARRA-ren kamiseta.**

### Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: 2. diskoa

**Irabazlea:**  
**Garbiñe Aramendi**  
(Ordizia)



**MUJKA**  
**LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA



**Barandiaran**  
**ZERAMIKAK**



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**



## Euskara txukunean

### Jokatu gara Jolastu gara

Jokatu gara/jolastu gara  
ondo al daude?

Bai, ondo daude. Gaur, hegoaldean, ez dakit noiztik jokatu dugu erabiltzen dugu beti, iparraldean, berriz, jokatu gara.

Beraz, musean/pilotan/futbolea jokatu ziren edo jokatu zuten. Baina Musean afaria jokatu zuten.

Hau da, zertan jokatu dute edo jokatu ziren? baina zer jokatu zuten?

### Jolastu gara Jolastu dugu Jolas egin dugu

Hirurak dira zuzenak; halere tokian tokiko erabilerari erreparatu behar diogu. Goierrin 30 urtetik gorakoek jolas egin dugu erabiltzen dute. Gazteagoek, berriz, hirurak erabili ohi dituzte. Zertan jolas egingo dugu? Zertan jolastuko dugu? Zertan jolastuko gara?

Maizpide Euskaltegia

### Ikusi duzun pailazokeriarik handiena?

Arazo bat konpontzeko norbaitekin hitz egin behar dela jakitea, eta mutuarena egitea.

### Egin duzun pailazokeriarik handiena?

Nire lagunei zerbait serio planteatzea.

### Zer da Kutxi-Kutxi Mari Lutxi?

Pailazoen agur goxoa morse kode alfabetikoan.

### Astean zenbat aldiz dutxatzen zara?

Bakarrik nagoenean 7 aldiz, baina 'Bel-tzi' txakurtxoarekin beste 7tan. Batez ere lehortu egin behar dudanean.

### Nork merezi du irrifarre bat?

Edozeinek, baina batez ere tristura barruan daramanak.

### Nork negarra?

Parre egin nahi dutenei parre egiten uzten ez dienak, bizimodua gogorragoa bihurtzen dutenak.

### Santa Fe jaietarako plan bat:

Dantza eta kantuen lainopean murgildurik, lagunekin ongi pasatzea.

### Mondejua ala odolkia?

Urrian mondejua, azaroan odolkia, eta gero txistorra eta txistorra.

### Zure biziko egunik okerreana?

Santurtziko Iosu ospitalean bisitatu nuenean. Mutikoak hiru urte dauzka eta kirofanoan sartu baino lehen bere azken hitzak: "Amatxo! Takolo zinta!", izan ziren. Atera zutenean, ohe ondok bere gustoko kanta abestu nizekion, gorputza mugitzen zuen baina alferrik, geroztik ez du gehiago hitz egin. Bere amak besarkatu ninduen eta sorbaldan negar egin zuen. Takolok ez zuen negarrik egin baina Agustinek Bilbotik bueltan bihotza hustu zuen.

### Eta hoberena?

Tantaka Yotanka indioa ezagutu nuenean, ordura arte euskaldunok munduko indio bakarrik ginela uste bainuen.

### Bizitzeko leku bat

Lazkaomendi.

### Oporretarako leku bat:

Car irla (Bahamak) edo Cuzcurrita del rio Tiron (Rioja), zalantzan nago.

### Amets bat:

Euskal Herriko sufrimenduak bukatzea eta munduko zoritxarrak konpontzea.



Takolo

Pailazoa

**IN AUSTI**  
**KARROZERIA**



N-1 errepidea, lurre auzoa  
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

## JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak  
filtroak, olioak, engrasea  
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak  
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57



Ausa-Gaztelu: Nafarroako erreinuko mugaldeko gotorlekua

Aranzadi zientzia

# "Datorren udarako zaldibiarren p

**B**igarren urtez jarraian, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzei esker, Aranzadi zientzia elkarteko kideak Ausa-Gaztelun zegoen Erdi Aroko gotorlekuaren azterketa arkeologikoa egiten aritu dira. Aranzadiko kide den Iñaki Padilla eta Karen Alvaro, Bartzelonako Unibertsitateko Erdi-Aroko arkeologia taldeko kidea, dira bilaketa lantalde honen arduradunak.

Aralarren iparraldeko hegaletan gora zutiturik Ausaren gailurra ageri zaigu, batzuek Ausa-Gaztelu edo, besterik gabe, Gaztelu bezala ezagunagoa egiten zaiguna. Larrunarri edo Txindoki bezain ikusgarria ez bada ere, garrantzia handiko topografi gunea dugu, Zaldibia eta Abaltzisketa udalerrien arteko mugan baitago. Tontor hau inguruko lurraldeen gaineko behatoki ezin hobea izan da betidanik eta bere garaian, Nafarroako erreinua- ren mugaldeko gotorlekueta- ko bat bertan kokatu zen.

Ataungo Jentilbaratza be-

zala, gaztelu hau defentsagune gisa eraiki zen Gipuzkoako lurraldeetara begira, nafarrek Gipuzkoako Aralarren zuten nagusitasuna indartzeko asmoz. Iñaki Padillaren esanetan, "aztarnategi hau mugaldeko gotorlekuen eredueta- ko bat da, eta aldi berean, ongi erakusten du nolako funtzionaltasuna eta ezaugarriak izan zituzten era

honetako gazteluek Erdi-Aroan". Gotorleku hauetaz gain, baziren mugaldean beste batzuk ere, hala nola, Gorriti eta Leitzakoak Leitzararen eta Orzorrozkua Goizuetan, besteak beste.

## Kokapen historikoa

Aipatu gotorleku hauek XI. mendean geroztik eraikiak

izan arren, lehendabizikoz XIII. mende bukaerako dokumentuetan ageri direla aitortu dute arkeologoek. "Nafarroako Artxibo Orokorrek eskainitako informazioari esker aztarnategiari buruzko zenbait xehetasun bildu ditugu. Alde horretatik ondo dakigu Beotibarko hondamendia gertatu zen urte berean, 1321an hain zuzen, eta har-

## Berreskuratu- tako objektu arkeologikoak

Uda honetako kanpainan egindako arkeologia-lanak goiko barrunbearen iparraldeko esparruan osatu dira nagusiki. Aztertu ahal izan diren mailak egituren suntsipen aldikoak dira batik bat, horien amaierako urratsekoak, hain zuzen ere. Maila horietan berreskuratu- tako objektu arkeologiko- en artean, iltze kopuru handiak dituzten burdinezko objektuak dira bereziki aipagarriak. Barrunbearen barrualdea eta estalkia osatzen zuten zurezko egituretatik jaso dira gehienbat. Bestalde, balezta eta arkuetarako erabiltzen ziren dardo eta gezi mutur ugari aurkitu di-



ra, etsaiaren erasoei aurre egiteko.

Baina zenbait bitxikeri- rekin ere topo egin dute. Esaterako, gazteluan bizi ziren jendeen janari hondarretako hezur-aztarna ugari berreskuratu dira. Hauek haien elikadurarako zenbait alderdiei buruzko argibideak ematen dituzte. "Hezurak beste zenbait tresna egiteko erabiltzen zituztela egiaztatzen du honek, dadoak, fi-

txak, kirtanak... eta badirudi gauza bera egiten zutela garai bereko Gipuzkoako beste gotorleku batzuetan".

Azkenik, aztarnategiaren data zehatzak ematen dituen zenbait txanponekin topo egin dute. "Ausako gaztelua muga-mugan kokatzen denez, Nafarroako eta Gaztelako txanponak aurkitu ditugu eta ziurrenik, abereen zergak ordaintzeko eta trukatze- ko erabiliko ziren".



**AUSO EGI**

Urdaneta, 41  
6-Faxa: 943 88 95 76  
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak





# Antzia elkartea: parte hartzea eskertuko genuke"



tan Mendialdeko eta Lizarrako merioak hil ondoren, konponketa lanak egin zirela Ausako gazteluan". Antza denez, gatazka garaiak ziren eta "bertan eraikitze-lanetan ari ziren nafarrak ez ziren bertara joaten ausartzen, gipuzkoarren erasoen beldur zirelako".

Urte haietan gorebehera franko gertatu ziren mugaldean, eta azkenean, erabateko gatazka piztu zen. "1335. urtean Lazcanotarrak, Segu-

ratarrak eta Gipuzkoako Ermanadadea Ausa eta Ataungo gazteluez jabetu ziren. Gauzak honela, XIV. mendearen erdialdean mugaldean bake giroa zegoen eta gotorleku hauek berez zuten egin-kizuna galdu zuten". Erdi Aroaren amaierarako berriz, gipuzkoarrek bertan behera utzi zituzten gotorleku hauek.

## Gazteluaren ezaugarriak

Gotorleku honi buruzko le-

hendabiziko arkeologi lanak Joxe Miel Barandiaranek egin zituen 1916. urtean. Gazteluko tontorrera igotzerako On Joxe Mielek egin zituen indusketa lanen azternak ikus daitezke. Iñaki Padillaren arabera, "Barandiaranek gotorlekuari buruzko gutxi gorabeherako krokisa egin zuen eta bertan bi barrunbe zentrokide daudela esan zuen: kanpoaldekoa, hormak eta haitzak osatua, eta honen barruan, berriz, mortaitu-harriz eginiko oin zirkularreko dorrea, inguruko jendeak Jentilen Labea bezala ezagutzen zuena".

Indusketa lanetan ari den arkeologo talde hau Barandiaranek utzitako informazioa eguneratzen ari da, nahiz eta bidean zailtasun askorekin topatu. "Gaur egun, aspaldiko eraikuntza hartako elementu gutxi batzuk baino ez zaizkigu geratzen, goiko barrunbeari dagozkionak gehienbat. Hori dela eta, barrunbe bakarreko eraikuntza

bat zela pentsatu izan da, baina ez da horrela".

Oraindik ere lan asko dago egiteke, eta "guri datozen laupabost urteetan Ausako gaztelua xehetasun gehiagorekin aztertzea gustatuko litzaike". Baina hori ez da beti posible izango diru-laguntzik ez badago. "Gure ustez Ausa-Gaztelun hasitako azterketarekin jarraitzea ezinbestekoa da, baina hone-tarako Diputazioaren laguntza ekonomikoa behar dugu, eta ez hori bakarrik, baizik eta datorren udarako zaldi-biarren parte hartzea ere eskertuko genuke".

Herriari deia luzatu zaio beraz. Orain, kontserbatu diren aztarnak birbalioztatzea eta Gipuzkoako ondare historiko-arkeologikoa osatzen duten elementu hauen zabal-kundea ahalbidetzea gertatzen da. Bada zeozor.

Iñaki Gurrutxaga-Koldo Zubeldia



**GENERALI**  
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20  
☎ 943 88 87 02  
BEASAIN

## OSTEOPATIA MEDIKU ZENTRUA

Rikardo San Vicente Dr. Koleg. Zkia. 4371

Pariseko Bobigny Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean Osteopatian diplomatua

- ✖ **Lunbalgia, dorsalgia, zerbikalgia, sorbalda** mindu eta gainontzeko lokomotozio-aparatuaren arazo mekaniko-funtzionalen eskuzko medikuntza tratamendua.
- ✖ **Tendinitis, gihar, tendinoso eta gihar-eskeleto arazoen elektromedikuntza bidezko** tratamendua.

Ordutegia: 16:30etik 20:00etara. Aldez aurretik txanda eskatu

☎ 943 880 728 Garmendia Otaola 7 behea. BEASAIN



# Santa Fe jaiak Zaldibian

## Urriak 5, osteguna:

### Santa Fe bezpera

- 19:00etan:** Txupinazoa. Ondoren Goiztiri txaranga ibiliko da kalea girotzen.
- 19:00etan:** Buruhandien irteera.
- 20:00etan:** Mondeju dastaketa.
- 21:00etan:** Areto-futboleko txapelketaren finala.
- 23:00etan:** Kristina eta Amaia musika taldearekin dantzaldia.



Arg.: Manuel Vasco Rodriguez

## Urriak 6, ostirala:

### Santa Fe eguna:

- 11:00etan:** Meza Nagusia: bertsolariak, trikitixa, dantzariak eta eskaintzak. Ondoren, txistulariak.
- 17:00etan:** Iztueta dantza taldearen saioa.
- 18:30etan:** Pilota partidak.

**19:30ean:** Laiotz taldearekin dantzaldia.

**22:30ean:** Bertso jaialdia: Xabier Amuriza, Jesus Mari Irazu, Igor Elorza, Nerea Elustondo, Ainhoa Agirreazaldegia eta Amets Arzallus.

**23:30ean:** Laiotz taldearekin dantzaldia.

**Musika atsedenaldirian** Play Back lehiaketa Gazte tal-

dearen eskutik. Saria, musika denda batean erosteko bonoa.

## Urriak 7, larunbata:

### Haurren eguna:

- 11:30ean:** Kiki, Koko, Moko eta Flax.
- 12:30etik 14:00etara:** Ordiziako Laguntasuna Errondailaren saioa.

**Eguerdian:** Haurren bazkaria plazan. Norberak eraman beharko du bazkaria.

**Ondoren:** Haurren Play back lehiaketa.

**16:00etan:** Zezenak eta pottokak herriko plazan.

**17:30ean:** Herri-kirol saioa herritarren eskutik.

**23:30ean:** Irrintzina taldearekin dantzaldia.

## Urriak 8, igandea:

### Koadrila eguna:

- 10:00etan:** Tolosako dultzaineroak.
- 11:00etan:** Meza Nagusia, bertsolariak, trikitilariak, dantzariak eta eskaintzak.
- 12:30ean:** Pilota partidak.
- 13:00etan:** Koadrilen irteera plazatik, Los Incansables txarangarekin.
- 14:30ean:** Bazkaria herriko plazan.

## NAZABAL ERRETEGIA

Otordu goxoak janez  
lagunarteko giroa

☎ 943 88 71 46 - 943 16 31 01  
Sta. Fe Kalea ZALDIBIA

## ZUBI ONDO

TABERNA


☎ 943 88 28 76 ZALDIBIA

## ILLATI TABERNA

- Mondeju pintxo eta etxeko solomoa
- Ogitaratekoak

*Festak ondo para*

Santa Fe ☎ 943 88 31 05 ZALDIBIA



## JOXEPANE HERRI OSTATUA

Jaiak ospatu  
Ostatuko janaria dastatu

☎ 943 88 20 47  
Albisu Etxea ZALDIBIA



Mendi-Ondo etxea  
☎ 943 88 40 57  
ZALDIBIA

- Iturgintza
- Berogintza

Esteban Lasa, 7  
☎ 943 88 80 29  
BEASAIN



**Ondoren:** Plazan, txarangak giro-tuta, koadrilen arteko jokoak.

**Arratsaldean:** Kalejira Los Incansables txarangarekin.

**23:30ean:** Trikitrixaren emanaldia.

**23:30ean:** Etzakit musika taldearekin dantzaldia.

**Goizaldean:** Txokolate jana.



Arg.: Manuel Vasco Rodriguez

### 'Ibilaldia ehumetroka'

Euskal Presoak Euskal Herri Zaldibiako Herri eki-menak antolatuta, 'Ibilaldia ehumetroka' erakusketa ikusgai egongo da Kultur etxean. Urriaren 5ean, 19:00etatik 21:00etara eta 6an, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

### Pilota partidak

● **Urriak 5, 18:30ean:** Haurretan: Alex-Benat Hodei-Mikelen aurka; gazteetan, Mendizabal-Gurrutxaga Erroizenea-Oteizaren aurka; afizionatueta, Saralegi-Urberuaga Azpiroz-Bengoetxearen aurka.

● **Urriak 8, 12:30ean:** haurretan, Orkatz-Adur Harri-Ugaitzen aurka; Bigarren mailako profesionalak, Berraondo-Sukia Chafee-Auxkinen aurka.

### Urriak 11, asteazkena: preso eta iheslarien eguna:

**17:00etan:** haurrentzat herri-kirol jaialdia.

**20:00etan:** Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatutako manifestazioa. Ondoren, ekitaldia.

**23:30ean:** Kontzertua: Iraun, Potato eta Paparazzi (Kataluniarak).

**Ondoren:** Mondejuaren entierroa.



### BIOK ALKAR auto konponketa

ABS frenuetan eta injezioan tailer espezialista

JAI ZORIONTSUAK DASA DITZAZUELA!

☎ 943 88 01 60

Mendi-Ondo

ZALDIBIA

### GUREA MERTZERIA (PEPITAN DENDA)

Arropa denda

- ◆ Emakume
- ◆ Gizon
- ◆ Haurrak

Txindoki, 23 ☎ 943 88 57 98 ZALDIBIA

### IÑAKI ERAUSKIN HARATEGIA

**Mondeju ederrak!**

☎ 943 88 30 87

Santa Fe Kalea

ZALDIBIA



**Garbitasunak**

Jai zoriontsuak denoi!

☎ 943 88 96 67

ZALDIBIA

# Bilore<sup>-k</sup>

Santa Fe jai zoriontsuak  
opa dizkizue guztioi!

Tel.: 943 809 300 Faxe: 943 889 012 Elbarrena auzoa z/g ZALDIBIA



23:30ean eta 02:30ean irteera eta 03:00etan eta 05:30ean itzultzera:

# Zaldibiako jaietara joateko autobusa antolatu du Ordiziako Udalak

**O**rdiziako Udalak, Gizarte Ongizate sailaren bitartez, urriaren 7an, Zaldibiako jaietara joateko autobusa antolatu du. Ordiziako Fray Andresen estatuatik abiatuko da autobusa. Momentuz, bina autobus izango dira joan-etorritako. Era honetako lehenengo esperientzia da Goierrin eta lehenengo esperientzia dohainik izango da. Arrakasta izanez gero, datorren urteari begira, egutegia zehaztu eta herri ezberdinetako jaietara joateko autobusa jartzeko prest dago Ordiziako Udala.

Nafarroan badira dagoe-neko inguruko herrietako jaietarako joateko autobus zerbitzuak eta erantzun ona



Ordiziako Fray Andresen estatuatik abiatuko da autobusa.

ari dira izaten. Ordiziako Udalak, beti ere arriskuak gutxitzearen, antzeko zerbitzua eskaintzea erabaki du. Lehenengo aproba, Zaldibiako Santa Fe jaietan egingo du. Joateko bi autobus izango dira: 23:30ean eta 02:30ean. Itzuleran ere beste bi: 03:00etan eta 05:30ean.

'Jaietan ondo pasa, eta ondo etorri bueltan' lema jarri dioten autobus zerbitzuari.

Aurten ondo ateraz gero, datorren urtean egutegia zehaztuko luke Udalak.

## Arriskuak gutxitu

Guzman Vazquez zinegotziak adierazi digunez, "agian kontraesana dirudi. Kontuz edan behar dela esaten dugu, are gehiago kotxea hartu behar baldin baduzu; eta beste aldetik ematen du autobusa jarritz gero, nahi duzuen hartu, gero autobusean itzuliko zaretelako ari

garela esaten dirudi. Baina hori ez da guk zabaldu nahi dugun mezua. Kontuz edan behar da era guztietan. Beste errealitatea da inguruko jaietan beti auto istripu asko izaten dela". Familiei lasaitasuna eskaini nahi diete, "askotan norbera edan gabe joanagatik, besteren baten erruz izan baitaizteke istripuak. 18 urtetik beherakoek, askok gordetzen dute dirua etxera taxisean itzultzeko baina beste askok auto stop egiten dute, jakin gabe, norekin sartzen diren. Oinez ere itzultzen dira eta bere arriskuak ere izaten ditu", gaineratu du.

Arriskuak gutxitu nahi dituzte Drogomerkatasun sailak, beti ere mezu zehatz bat emanez: "alkohola edo drogaren bat hartu nahi duenak, informazioa eduki dezala eta ondorio guztiak jakin ditzala". Autobusarekin batera kontzientziario kanpaina egitea da helburu.

**URBITARTE**  
sagardotegia



Erretegi modura zabalik

Erreserba telefonoa:  
**943 18 01 19**

Ergoiena Auzoa **ATAUN**

**Ford**  
**MUJIK**



**BEASAIN** ☎ **943 88 74 00**

"Eguneroko ogia,  
ogi bereziak eta  
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35    Elozegi, 14    Sta. Maria, 19  
☎ 943 88 77 58    ☎ 943 88 72 79    ☎ 943 16 00 44  
**BEASAIN    LAZKAO    ORDIZIA**



# Txorizugarrien lehiaketa eta erakusketa

Udazkenaren etorrerarekin, Goierriko Euskal Eskolak, Maizpidek eta Gerrikok Txorizugarrien IV. lehiaketa antolatu dute. Iaz lehiaketa hau bertan behera utzi beharra izan zen leku arazoak zirela eta, eta horixe da hain zuzen ere aurten lehiaketa hau aurerratzearren arrazoa.

Lehiaketa honetan nahi duen edonork parte hartu dezake; bakarka nahiz taldeka. Haurrentzat nahiz helduentzat dago pentsatuta. Txorimalo hauek egiteko edozein material erabili daiteke. Dena den, lurrean tente egoteko gauza izan beharko da. Hau da, ardatz bat izan beharko du lurrera ez erortzeko. Honez gain, txorizugarri bakoitzak esaldi bat eraman beharko du euskaraz. Aurtego gaia honako hau duzue: Afrikara migrazioa. Izan ere, he-

gaztiak orain hasten baitira lurralde beroagoen bila negua igarotzeko.

Parte hartu nahi duen edonork Gerriko Liburudendan eman behar du izena urriaren 11 baino lehenago. Lanak, berriz, Kultur Etxera eraman behar dira urriaren 18an arratsaldeko 3etatik 8etara. Sari banaketa urriaren 27an, ostiralean, izango da arratsaldeko 6,30etan. Izan ere, lehiaketa honek bost sari izango ditu. Sari hauek Gerriko Liburudendan liburuetan eta diskoetan gastatzeko 10.000 pezetetako txekueak izango dira.

Lehiaketa honetan parte hartzen duten txorimalo guztiekin erakusketa bat egingo da urriaren 23tik 29ra bitartean Kultur Etxeko Erakusketa Aretan.

## Agurra

GOIERRITARRA aldizkarirako egiten dudan azken kronika honako hau denez, eskerrak eman nahi nizkieke informazioa lortzen lagundu didaten guztiei. Izenak asko badira ere bereziki aipatu nahi nituzke Joxepa, Miren, Aitzol eta baita gure herriko alkate den Felix Urkola. Eskerrik asko zuen laguntzagatik eta ea hurrengoari ere laguntza berdina eskaintzen diozuen.

## Kronista berriaren beharra

GOIERRITARRAn Lazkao kronika idatziko duen norbait behar da. Prest dagoenak 943 88 96 12 telefonora dei beza.



## Antzarrak Errealzaleen peña

Irailaren 27 udaletxeko batzar aretoan aurkeztu zen Antzarrak peña. Gabilondo, Gurrutxaga, Jauregi eta Aranburu Errealeko jokalaria izan ziren bertan. Erdian Eugenio Ropero peñako lehendakaria eta Igor Sarriegi aurkezlea ageri dira. Batez ere gaztetxoengan ikusmin handia sortu zuen aurkezpenak.

## Azkik ikastaroak antolatu ditu

Lazkao Emakumeen Elkartek, Azkik, urriaren 2an eman dio hasiera ikasturteari. Hainbat ikastaro eta hitzaldi antolatu dituzte kurtso honetarako ere.

Astelehen eta asteartean yoga ikastaroak izango dira. Astelehenetan 16:30etik 18:00etara eta asteartean berriz, 10etatik 11:30etara. Asteazkenarako ekitaldi ugari antolatu ditu Azkik. Izan ere, "sevillanak" dantzatzeko ikasteko aukera izango dute herriarrek 14:30etik 16:30etara. Arratsaldean, aldiz, joste lanak egin ahal izango dira eta ondoren tertulien txanda iritsiko da. Ostegunetan ortografia eta idazketa landuko dira. Eta larunbatean amaituko dira ikastaroak. Larunbatetan dantza egiteko aukera izango da, aretoko dantzak alde batetik, eta "sevillanak" bestetik.

Bestalde, Azkik hiruhilabete honetan hiru hitzaldi eman nahi lituzke. Hitzaldi hauen datak zehaztu gabe daude oraindik. Dena den, gaiak aldeztu aurretik jakin ditzazuen hementxe dituzue: Emakumea politikan, bularreko minbizia eta emakumea erakundeetan.

## Orobioneko proiektua

Orobione birgaitzeko deialdi aurkeztu den enpresa Construcciones Amenabar izan da. Enpresa honek baldintza guztiak betetzen dituen, berari esleitzea onartu da. Orobionen jubilatuen egoitza kokatzeko asmoa dago, baita beharbada eguneko zentru bat egiteko ere. Proiektuaren kostu ekonomikoa ia 172 milioikoa da. Orobione birgaitzeko obrak urrian hastea espero da eta 18 hilabete barru amaitzea.

Elordi Garcia

**SAN BENITO IKASTOLA**  
LAZKAOKO  
Haurtzaindegia-ludoteka

Zabalik urte osoan zehar:

- \* Haurtzaindegia: 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- \* Jantokia: 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- \* Haurtzaindegi-Ludoteka: 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- \* Kangueroak: Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

## IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

## KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO



# 120 ikasle herri eskolan



Argazkian, aurreko lehen aldiz eskolaratutako umeak. Ezkerretik eskubira: Aritz Irureta Telleria, Martin Arriolabengoa Telleria, Aiara Garaialde Zeberio, Irati Diez Virto, Janire Gonzalves Fernandez, Ekiñe Izagirre Santoyo, Uxue Urbizu Etchezarreta, Iker Imaz Ormazabal, Jon Anduaga Mariano, Arrieta Elorza Gimenez Iker Garro Arrondo eta Maite Garmendia irakaslea.

61 neska eta 59 mutil dabil-tza Laiotz herri eskolan hasi berria den ikasturtean, iaz baino 2 ikasle gutxiago. Hauetatik 9 zeraindarrak dira eta 5 mutiloarrak. Lehen aldiz eskolaratu diren 2 urteko haurrak 11 dira, iaz baino 5 gutxiago. Beheko eskolan 2tik 5 urte arteko Haur Hez-kuntzakoak dabil-tza. Goiko-an Lehen Hez-kuntzako 6tik 12ra artekoak.

Berrikuntza nagusia esko-letan egin diren obrena izan da. Beheko eskolan, 4 eta 5 urtekoen gelak, irakasleen gela eta komunak berritu di-ra. Goikoan, berriz, sukaldea eraberritu da. Hau guztia, Delegaritzak, Udala eta Herri Eskolaren beraren laguntzaz

egin da.

## Udal ikastaroak

● **Eskulanak:** Aste honetan hasi dira 12 lagun. Guztira 30 ordu. Astelehenetan, 14:30ean kultur etxean, Iñaxi Urreta zegamarraren ardura-pean.

● **Euskara:** Iaz bezala, eus-kaldundu eta alfabetatu nahi duenarentzat. Astean 3 egun eta 2 ordu, urritik ekainera. Udalak matrikularen erdia subentzionatuko du.

● **Egur tailaketa:** Urrian da hastekoa.

Hauek amaitzean eta es-kaeren arabera ikastaro gehiago antolatuko dira. In-formazio gehiago udaletxe-



**Albisuenea, Arrue edo Sandonenea** bezala eza-gutua den etxeko fatxa-da nagusiaren eraberri-tzea aste honetan amai-tzea espero dute Aran-zadi elkartearen ardura-pean ari diren langileek. Argazkian, etxeak orain arte izan duen itxura.

## Labur-labur

● **Obrak kanposantuan.** Udalak onartua du hilerriaren be-rrikuntza. Lanen lehenengo fasean, ate sarrera berria (kotxe aparkalekutik) eta beheko partean 72 nitxo egingo dira.

● **Herri sarreraren txukunketa.** Madalenako errotondatik Jermanenera, bidearen, arbolan eta argien txukunketa eta berrikuntza berria egitekotan dabil udala. Horretarako 'Lur' enpresa paisajistak 4 proposamen aurkeztu ditu. Hauek he-rritarrei azaltzeko bilera deia egingo du udalak.

● **Parroko berria.** Irailaren 10ean hartu zuen kargua Jose Luis Agirretxe 49 urteko erreizidarrak eta Arrasateko fran-tziskotarretatik dator. Josu Elorza, aurreko parrokoak ia 6 urte egin ditu.

● **Koruaren entsaioak.** Santa Zezilia egunerako eta Gabo-netarako kantuak prestatzeko, ostegunero elkartzen dira, 20:00etan, kultur etxean.

● **Gripearen aurkako txertoa.** Urriaren azken egunera ar-teko epea. Osasun etxean.

● **Medikuarenerako txanda** aldeztu aurretik eskatu behar da Osakidetzaren aginduz, 943801919 telefonora deituz (8:00etatik 17:00etara).

● **Barakaldoko superkoartelaren aurkako manifestazio-rako** autobus tikeak Elorripen daude 1.000 pezetan.

● **Presoen eskubideen aldeko konzentrazioak.** Astelehe-nero 20:00etan plazan.

● **Urriaren 22an Zizur Nagusian izango den Nafarroa Oi-nezerako autobusa** antolatu du Elorri Kultur Elkartek. Izen ematea Elorripen (1.000 pezeta).

an.

Hauetaz aparte, hasi be-rriak dira baita ere soinketa (jubilatzen nahiz ez jubilatuen-tzat) eta internet ikastaroa.

## 'Segura historian zehar'

Joseba Intxaustiren zuzenda-ritzapean, gauzatzen ari den liburutegia, herriarekin zeri-kusia duten argazki edo do-kumentu grafikoak behar di-ra. Horretarako udalak herri-tar guztiei eskatu die lagun-tza, argazkiak 15 egunetan itzultzeko konpromezua-rekin. Jasotako guztiekin era-kusketa antolatuko da.

## Baqué pelota torneoa

Jubenilen mailako Gipuzko-ako txapelketa urriaren 11n da hastekoa. Tolosaldea, Urola Garaia eta Goierriko pelotariek Seguran jokatu-ko dituzten partida guztiak, as-tearte eta asteazkenetan arra-tsaldeko 6,30etan 3na parti-

da. 23 pelotari ikusi ahal izango ditugu, horien artean Garikoitz Oiarbide herrita-rra. Sarrera doan.

Bestalde, Segurak ez du parte hartu Gipuzkoako Klu-ben artekoan. Garikoitz Oiarbide Beasaingo taldeare-kin ari da.

## Preferentekoak lider

Lau partidatatik 3 irabazi eta bat berdindu ondoren, sailka-peneko 1. postuan daude.

**Asteburuko emaitzak:** Preferentea: Segura 3-1 Hon-darribia. Jubenilak: Segura 2-0 Bergara. Kadeteak: Uro-la 2-4 Aizkorri. Infantilak: Real Union 2-0 Aizkorri.

**Asteburuan etxean:** In-fantilak: Aizkorri - S. Herre-ra (igandean, 11:00etan). Ka-deteak: Aizkorri - Zumaiako (igandean, 17:00etan).

Joseba Telleria



# Garagardoa lepo

Lehendabiziko aldia izanda eta antolatzerako garaian izan duten denbora falta kontutan hartuta balorazio baikorra egin dute Ordizia Rugby Elkartekoek ospatu berri den I. Garagardo Festa-ren inguruan. Beasain, Lazkao eta Tolosan egindakoak oinarritzat hartuta lau egunetan zehar mota askotako garagardoak dastatzeko aukera izan zuten joaneko asteburuan Beti Alai pilotalekura hurbildu ziren guztiek. Pitxarra eta txartelak sarreran hartu eta zuzenean barrara. Bertan garagardo beltzak, alkoholik gabekoak, txuriak, tostatuak edota "rubiak" eskatu zerbitzariei eta berauei laguntzeko txitxi burduntzi edota saltxitxak.

Presaren presaz ibili ondoren Rubby Taldeko arduradunek aitortzen dute beraiek nahi adina jende ez dela ibili, dena den pozik geratu direla herritarrek izan duten erantzunarekin. Kontuan hartuta udazkeneko lehen egun hauek garagardoa edateko aproposkiak ez direla, nahiko eguraldi hotza egiten

baitu, festa girotzeko ohiko apiangarririk jartzeko astirik ez dutela izan, garagardo festetan ohikoak diren txerri ukalondoak eskaintzeko aukerarik ez dutela izan eta inolako ikuskizunik eman ez dutela, antolatzaileek barkamenak eman nahi dizkie bertaratu dien guztiei.

Aurtengoa kontutan hartuta datorren urteari begira jarri dira dagoeneko eta aurreratu dutenez 2001 urtean ekaina amaieran edota uztaila hasieran izango da II. Garagardo Festa. Ordurako eskenatoki guztia honelako festa batek eskatzen duen baldintza egokienetan jartzen ahaleginduko dira.

## Amorrainaren atzetik

Helduenek pilotalekuan garagardoaz dastatzeko aukera zuten bitartean, gaztetxoek igerilekura hurbildu besterik ez zuten amorrainak arrantzatzeko. Izan ere Majori Kiroldagiko ekimenaz, udako denboraldia amaitu dela eta etekina atera nahi izan diote estali gabeko igerilekuari eta



## Santa Maria kaleko lanak

Nikolas Lekuona Plazatik hasita Kale Nagusiraino doan Santa Maria Kaleko lanak hasi berriak dira. Hirigunea urbanizatzeko orain urte batzuk hartutako erabakiaren barruan, hainbat kaletan lanak burutu ondoren bertako kale luzeenari dagokio oraingoan txanda. Nikolas Lekuona Plazan hasi dira zorua altxatzen eta lanok 10 hilabete inguru iraungo omen dituzte. Denda eta taberna ugari dituen kalea izanda ziur arazo ugari sortuko dituen gunea izango dela. Dena den, pazientziak hartu beharko ditugu herritar guztiok lanok. 90 milioi inguru beharko dira oraingoan.

Horrezaz gain Urdaneta Kanean ere etxe zaharrak bota eta berriak eraikitzen darraite. 100 urtetik gora dituzte batzuk eta oso egoera kaskarrean daude.

honetarako amorrainez hornitu zuten. Gaztetxoek deialdia egin eta hor aritu ziren joandako asteburuan gazte eta gaztetxoak euren doainak erakutsiz. Amorrainak arrantzatzeko edozein teknika erabil zitekeen, baina bakoitzak 4 amorrain baina gehiago ezin zituen hartu.

Antolatzaileek denbora-

pasagarri gisa antolatutako ekimen honek izandako erantzun ona ikusita datorren urtean antzeko zerbait egingo duelakoaren hitza eman du. Izan ere, arrainak negu guztian zehar erabili ez den igerilekura botatzeak ez baito inolako kalterik egiten.

Aitor Calvillo

**Arkupe**  
tapizegia  
Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak  
Mantak - Mairidreak - Storeak  
Toallak - Gortinak eta osagalak  
J. M. Barandiaran Plaza  
☎ 943 88 00 84 ORDIZIA

**SOLOZABAL**  
AUTO-ESKOLA  
Mota guztietako baimenak:  
B, B+E, C, C+E, D, D+E, A1 eta A  
Aita Urdaneta ORDIZIA  
☎ 943 88 72 76

**iBAi ONDO**  
  
**AROTEGIA**  
instalazio berriak  
Altzariak neurria  
Mota guztietako arotzegi lanak  
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa  
Logela, egongela eta sukaldeko altzari  
nahiz osagarrietan aukera paregabea  
☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47  
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640  
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

  
**GUK-LAN**  
Berogintza - Iturgintza - Gasa  
Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33  
Okorro 6 - behea ORDIZIA



# Euskal Herriko arraza autoktonoen erakusketa

Datorren urriaren 22an, lehen aldiz Euskal Herriko arraza autoktonoen erakusketa ospatuko da. Gure herriko zelai eta kiroldegi inguruan Euskal Herriko berezko arrazak diren abereak bertatik ikusteko aukera izango da. Gure



herrira iritsiko diren abere arraza horietatik asko autoktonoak izateaz gain, desagertzeko arriskuan aurkitzen direla da azpimarragarriena. Azken urte hauetan abere horien egoeraz oharturik hainbat elkarte eta baita gizabanako ere etenik gabe lanean dihardute. Elkarte horien artean 'Ormaiztegiko Karramarro elkarte' aipa dezakegu, berau gure erreketako karramarroa ugaldin ekimen berezia garatzen ari da.

Beraz, abere horien kontserbatzeak duen garrantziaz oharturik, Euskal Herriko arrazen erakusketa antolatzea oso interesgarri eta beharrezko bezala jo zen arraza autoktonoen hainbat elkarte, Ormaiztegiko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.

Aipatu guztia eta arrazen egungo egoera kontuan harturik, burutzen ari diren lanak biltzearen, aurten lehen aldiz eta gerora finkatzeko asmoz, Euskal Herriko arraza autoktonoen erakusketa antolatzeko erabakia hartu

zen. Egun abere horiek kultur ondarearen atal garrantzitsu bezala onartzen dira, eta ez da ukatzen fauna basatiaren balioa paisaia eta ingurugiroarekiko ezta hura desagertzeaz babestu beharra ere.

Aziendak bi alderdi horiek biltzen ditu: alde batetik, abere horiek euskal paisaiaren osagaiak dira eta bestetik, euskal ganaduzaleek mendeetan zehar egindako lanaren emaitza dira.

## Egitaraua

Erakusketaren egitaraua jarraian aipatzen den eran burutuko da:

**10:30ean**, Euskal Herriko arraza autoktonoen erakusketaren irekitze ofiziala.

**10:30etik 14:30era**, erakusketarako egokituriko gune berezietan abere autoktonoez osatutako erakusketa bisitagai izango da. Gune bakoitzean megafoniaren bitartez elkartekideek abereei buruzko argibide zuzenak emango dizkie ikusleei.

**10:30etik 14:30era**, Zubipe kiroldegian abere autok-

## Urteko jubilatuen eguna

Aurreko urteetan jubilatuek beraien eguna azaroan ospatu izan badute ere, aurten egokiagoa izango delakoan, urriaren ospatzea pentsatu dute. Beraz, urriaren 15ean izango dute beraien eguna. Jubilatuen egunari hasiera emango dion ekitaldia Meza nagusia izango da. Ander Deunaren parrokian, 12:00etan ospatuko da eta hildako elkartekideei eskainia izango da. Ondoren Lierniko Mujika jatetxera hurbilduz, bazkaria izango dute. Bertara joateko autobusa 13:30ean, Jubilatuen elkarte aurretik aterako da. Bazkarian parte hartzeko izen emateak elkartean bertan egin behar dira uriaren 5 eta 6an, 12:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

## Giro ederra San Migel ospakizunetan

Giro ederrez burutu ziren San Migel ospakizunak. Egunean zehar burutu ziren jokoetan partaidetza handia izan zen. Goizean zehar jokatu zen IX. Toka txapelketan Soto izan zen irabazlea, eta bigarren Abasolo. Ondoren jokaturako V. Harrikalari txapelketan Haritz Maiz izan zen garaile, 22 metro eta 93 zentimetro bota zituelarik. Bigarren Aitor Abasolo izan zen; 2.080 kilogramoko harria, 21 metro eta 15 zentimetrorat bota zuen. Mus txapelketan 25 bikotek parte hartu zuten eta Alex Irizar eta Jose Luis Borde izan ziren irabazleak. Bigarren, Iturri eta Txaparro izan ziren; hirugarren Galindo eta Izagirre eta laugarren Andoni Mendizabal eta Aitor Iurrita.

## Kate eta medaila galdu dira

Orain egun batzuk herrian kate eta medaila bat galdu ziren. Norbaitek aurkitu izan baditu, arren, 943725273 tefonora dei dezan eskatzen zaio. Itzuliz gero aurkitzailea saritua izango dela jakinarazi zaigu.

## Odol-emaile elkartearen eskertza

Irailaren 27an, herriko odol-emaile elkarteak antolatuta odol-emaitea izan zen herrian. Jaso ditugun datuen arabera, inoiz baino odol ateraldi gehiago burutu ziren: 54.

Odol ateratzeak aurrera eraman ahal izateko herriko odol-emaileen elkarteak hainbat erakunde eta herritarren laguntza jasotzen du. Guztiei biziki eskertu nahi die izandako laguntza. Beraien eskerrik beroena luzatu nahi die herriko sendagile eta mediku kontsultorioko kideei, Udalari, Elozegi ardote-giari, Erosle autozerbitzuari, Murua eta Deba harategiei eta Euskadiko Kutxari.

tonoei buruz eginiko bideoaren aurkezpena eta argazki erakusketa bisitagai izango dira.

**Goizean zehar** pottoken lehiaketa morfologikoa burutuko da.

**13:30etik 14:30era**, herriko Txindata Musika Eskolako trikitilari gaztetxoek kalejira herriko kaleetan zehar eta erakusketa guneetan ere giroa alaituz.

**14:30ean**, partaideentzat bazkaria.

Abere autoktonoen erakusketan parte hartuko duten elkarte eta abereak ondorengoak izango dira: Betizu, terreña eta Pirenaikak; pottokak, Euskal Herriko mendiko zaldia, Jaca Navarra eta Burguete zaldia; Euskal Oi-loa; ardiak, mutur gorri edo latxak eta mutur beltzak; ahuntz azpi gorriak; Euskal ardi txakurra; Ormaiztegiko karramarroa; Euskal txerria; eta Euskal erlea.

Aitziber Murua



## Juan Mari Jauregiri omenaldia

Irailaren 23an ekintza ugari egin ziren herrian Juan Mari Jauregiren omenez. Izan ere, uztailaren 29an ETak bi tiroz hil zuen Tolosan. Juan Mari Jauregi PSOEko kide eta 1994-1996 urteetan, Gipuzkoako Gobernadore Zibila izan zen. Azken urteetan Txilen bizi bazen ere, atentatua gertatu zenean Legorretan zegoen senideekin egun

batzuk igarotzen.

Omenaldia Burnikurutze-tara egin zen ibilaldiarekin hasi zen. Bertan, senitarteko eta lagunek bere errautsak zabaldu zituzten. Ondoren, bere omenez ezarri berri duten monolitoa lorez inguratu zuten. Senitarteko eta lagunek gain, hainbat politikari, udaletako ordezkari zein Le-



gorretako bizilagun ugari bildu ziren Harripila kiroldegian omenaldiari jarraiera emateko. Besteak beste, Oscar Renedo, Tolosako zinegotzi sozialista, Margarita Robles, Estatuko idazkari ohia eta herriko alkatea den

Xabier Iraolak hartu zuten parte. Omenaldia herriko plazan egin zen bazkariarekin amaitu zen, bertan 400 pertsona inguru bildu zirelarik.

*Laida Oiarbide - Inko Mujika*

## Silo-bola plastikoen bilketa

Silo-bolen plastikoak biltzeko aurtengo kanpaina hasi da. Bilketa hilean behin egingo da, hirugarren astear-tean.

2000. urteko egunak hauek izango dira: urriaren

17a, azaroaren 21a eta abenduaren 19a.

2001. urteko egunak: ur-tarrilaren 16a, otsailaren 20a, martxoaren 20a, apirilaren 17a eta maiatzaren 15a.

Plastikoak biltzeko tokiak iazkoak dira, herriko sarre-ran eta Kortzu aldean. Gogo-ratu plastikoak bezperan utzi behar direla toki horietan.

### Jaiotza

Irailaren 24an jaio zen Ainhoa Goñi Olaetxea, Eneta-rriaga etxeko Salome eta Modestoren alaba. Zorionak sendi osoari.

*Iñaki Ugalde*

### LOINATZ

Taberna  
Jatetxea

Bazkari, afari,  
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



**Iñautsi**  
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO  
602 Zbkl. KOLEGIATUA

*Jai*  
zoriontsuak!

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK  
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

**GOIERRITARRA** doan  
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak .....

Helbidea .....

Herria .....

Ordiziako 124 Posta Kutzara bidali



LADA  
Ssang Yong

N-1, z/g

☎ 943 88 09 47

**ARANDIA**  
Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa  
OLABERRIA



**Alpe**

**MASTER**

Elektragaiak  
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN





## Urriak 8: mendi-ibilaldi neurtua

Asteburu honetan ospatuko den mendi-ibilaldi neurtuak bi ibilbide nagusi izango ditu. Ibilaldi nagusiak 4 ordutik 4 ordu t'erdirako iraupena izango du. Goizeko 8etan San Martingo plazatik irten eta Esparru menditik, ibilaldiko punturik garaienera igo beharko dute partehartzaileek, Atxurbideko tontorrera (785m.), hain zuzen ere. Handik Igartzateberrira jaitsi eta behin San Gregoriora helduz, Gaztiñerretik zehar, abiapuntura itzuliko dira.

Aukerako ibilbideari berri, 9etan emango zaio hasiera eta 2 ordu 2 ordut'erdiko iraupena izango du. San Martindik irten eta Astigarra, Arrondo zeharkatuz Gaztiñerretik bueltan San Gregoriora jatsiko dira partehartzaileak. Handik, Agauntza erreka lagun dutela, "paseo berri" itzuliko dira San Martina.

Izena irteera baino orduerdi lehenago eman beharko da eta 2 edo 3 lagunekoa izan beharko dute taldeek.

Ataun Kirol Elkarteak, Udaren babesarekin antolatzen duen ibilaldi neurtu honetan sailkapenik ez da izango. Amaieran partaide guztiei emango zaie oroigarri bana.

Bestalde, ibilbidearen nondik-norakoa adierazita

egongo da eta Gurutze Gorria ere prest izango da laguntzeko.

### Areto-futbola

Asteburuan jokatuko diren areto-futboleko partidak:

**Urriak 6: 21:30ean**, 2. maila Bko partida: Ataun Bitor Jatetxea - Larramendi ILK 'C'. **22:30ean**, maila autonomikoko partida: Ataun K.E. - Fortuna. **Urriak 7: 16:00etan**, neskak: Ataun Zubikoeta gasolindegia - Goierri 'A'.

*Agurtzane Bikuña*

### Pelikulak ikusgai Herri antzokian

Aspaldiko urteotan herrian genuen hutsune garrantzitsu bat bete zuen Herri Antzokiaren eraikuntzak. Baina ondoren guztiok buruan generabilkien galdera zinemara joateko aukera noiz izango ote genuen zen. Aukera hori berehalakoan izango dugu, bada. Urritik maiatzera bitartean lau emanaldi eskainiko baitira astean. Ostegunetan 21:30ean, ostiraletan 22:00etan, larunbatetan 22:00etan eta 19:30ean igande eta jai egunetan. Bestalde, igande arratsaldeetan, 16:30ean haurrei zuzendutako filmak eskainiko dira. Dena den, egun eta ordu hauek frogan egongo dira urte bukaerarako. Zine emanaldiak urriaren 12an hasiko dira, jaieguna denez, 19:30ean izango da.

Arduradunen esanetan beren helburua ahalik eta programaketa zabalena, berriena eta arrakastatsuen eskaintzea da, film mota desberdinak eskainiko direlarik. Honela:

**Zine komertziala:** Film garrantzitsu eta

arrakastakoak botako dira. Hiriburuan estrainatu eta aste gutxi barru izango ditugu Ataunen ikusgai.


**Haur zinea:** Bereziki haur eta gaztetxoei zuzendutako filmak programatuko dira igande arratsaldetan. Azken pelikula berriak ikusteko aukeraz gain, euskarazko filmak ere ikusi ahal izango dira.

**Zine kluba:** Udaberri aldean ziklo berezi bat antolatuko da ostiraletan zine komertzialaren zirkuitotik at dauden pelikula on eta interesgarrienekin.


Ongi etorria bedi zinema berriro ere herrira!

### VI. Ataun aztergai beka

Aurtengo beka Aitziber Murua Uribe Etxeberriari emateko erabakia hartu zuen irailaren 13an Udaletxean elkartu zen epaimahaiak. 'On Juan Arin Dorronsoro. Bizitza eta lana' izan da Aitziberrek aurkeztutako lan proiektua. Urteaskotarako beraz, Aitziber.



Ibilbide nagusia



Aukerako ibilbidea

✓ Aholkularitza juridikoa  
✓ Entrepresa zerbitzuak  
✓ Aseguruak

**GERTU ABOKATUAK**

Tel./Faxa: 943 16 21 92  
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

**BERRIZ ARANBURU**

**ERROPADENDA**

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



# Asmube emakume elkartea ikastaroz gainezka

X. urteurrena ospatuko dute azaroan eta hau dela eta inoiz baino ekintza gehiagorekin emango diote amaiera urteari. Urriari dagokionean esan, ikastaro desberdinak hasiko direla. Bertan parte hartu nahi izanez gero, Urbi Etxean duten egoitzara azaldu beharko zarete. Hauek dira emango diren ikastaroak:

**Liburutegira gerturatuz:** Bi ekintza burutuko dira Udal Liburutegian. Hilaren 4, 11, 18 eta 25ean, 4etatik 5etara. Liburuen erabilera. Irakaslea: Zeles Goitia. Hilaren 6, 13, 20 eta 27an, 4etatik 5etara. "Emakumearen irudia literaturan". Tere Irastortzak aurkeztua.

**Yoga:** Irakaslea: Lurdes Oronoz. Hilaren 9tik aurrera, 15:30etik 17:00etara (astelehenetan eta ostiraletan). Hilaren 10etik aurrera, 9:00etatik 10:30etara eta 10:30etatik 12:00etara (asteartetan eta ostegunetan).

**Sendabelarren ikastaroa:** Irakaslea, Alberto Luengo. Hilaren 9, 16, 23 eta 30ean, 17:30etik 19:30era. (Guztira 18 ordu).

**Tiffany kristalezko lanparei buruzko ikastaroa:** Irakaslea Iñaxi Urreaga. Hilaren 10etik aurrera, 15:00etatik 17:00etara (Guztira 20 ordu).

**Hari bidezko lanak:** Irakaslea Iñaxi Urreaga. Hilaren 10etik aurrera, 17:30etatik 19:30etara (Guztira 20 ordu).

**Autoczagupen ikastaroa:** Irakaslea Arruti Kabinetkoka. Hilaren 10etik aurrera, 17:00etatik 19:15era (Guztira 14 ordu).

**Eskulan ikastaroa:** Irakaslea Artea. Marmolino, egur eta metalen gainean marrazketa. Hilaren 11tik aurrera, 17:00etatik 19:00etara (Guztira 18 ordu).


**Informatika ikastaroa:** Word 2000 eta Excel 2000. Studio Akademian. Hilaren 16tik aurrera, 9:15etatik 11:15etara (Guztira 24 ordu).

**Sukaldaritza makrobiotikoa:** Informazio hitzaldia izango da. Hilaren 16an, 17:30ean.

**Olio bidezko marrazketa:** Irakaslea Dioni Lopez. Hilaren 19tik aurrera, 15:00etik 18:00era.

**Osasun eta elikadurari buruzko hitzaldia:** Hilaren 10, 17 eta 24an, 18:00etatik 19:00etara, Urbietako Balioanitz Gelan. Hizlaria: Eusko Jaurlaitzako Kontsumo Sailakoa.

*Nekane Altuna*



## Urruzuno Literatur sariketan irabazleak

Lau beasaindar sarituak izan dira Urruzuno Literatur sarian. Daniel Ferreira, Unai Baztarrika, Ane Azurmendi eta Irati Goikoetxea. Alkartasuna Lizeoa eta Loinazpe eta Txindoki institutuko ikasleak dira. Danielek 'Maite Bengoetxea begira zegoen' lanarekin irabazi du; Unai, 'Etenaren trilogia' lanarekin; Anek 'Zaharrak berri'-rekin eta Iratik, 'Koloareak, bizitzaren arima' lanarekin.

Besteak beste, Austria, Eslovenia eta Italiara bidaia egin dute sarituek. Zorionak guztioi!

## 'Aupa Navarra' jota taldea

Jota talde honen musika entzuteko aukera izango da gaur, urriak 6, gaueko 10etan Ezkierdi pilotalekuan.

## Igartza jardunaldiak

Urriaren 16an hasiko dira errota eta energia berriztagarriei buruzko erakusketaren klase didaktikoak. Iaz sortu zen ekimen hau, Beasaingo ikastetxeek herriko historia behar bezala kontatzeko zailtasunak ikusten zituztelako. Honi erantzun egoki bat emateko jarri zen martxan ikastaro hau. Ainara Arrondo izango da klase hauen arduraduna eta Beasaingo Erdi Aroko bizimodua ikasiko da. Horretarako oinarri teoriko eta praktikoak izango dituzte ikasleek.

## Javier Kraheren kontzertua

Urriaren 18an jarriko da martxan Musiketan programa. Javier Krahe musikari madrildarrak eskainiko du lehen kontzertua. Usurbe Antzokian izango da 21:00etan. Sarrerak 1.000 pezeta balio du.

## Igeriketa taldearen denboraldi berria

Antzizar Igeriketa Taldekoek jakinerazi digutenez, dagoeneko hasia dute denboraldi berria. Dena den, taldean sartu nahi duten aurrek, 1990-1994 urte bitartean jaiotakoek (biak barne) badute oraindik ere aukera izena emateko. Polikiroldegian egin behar dira izen emateak, arratsalde 6-etatik 8-etara (Iker).



# Bi Idiazabalak ofizialki elkartuta



*Bi herrietako ordezkariak Villamariako udaletxe aurrean.*

Argentinako idiazabaldarrek egindako harrera beroa eta hango herritarrek gure herriarekiko erakutsitako interesa ahaztu ezinda itzuli dira Argentinara joandako herritarrek. Aitzakia: Argentinako Idiazabalen 90. urteurrena. Protagonistak: Udaleko hainbat ordezkari eta herritar talde bat. Iraupena: lau egun Idiazabalen, besteak, Buenos Airesen eta Iguazun.

2000. urteko irailaren 9ak, hizki haundiz idatzita geratu beharko luke bi Idiazabalen historietan. Egun horretan sinatu zen Argentinako eta Euskal Herriko Idiazabalen arteko adiskidetzeko agiria. Zortzi urteko elkarlanaren ondoren, paperean, Miguel Angel Martinato eta Antton Irizar alkateek jarritako sinadurekin batera, gizarte, ekonomia eta kultura alorrean elkarlanean aritzeko konpromezua hartu zuten.

Argentinako Idiazabalgo Udalak, bisitan joandako idiazabaldarrak 'Ohorezko bisitari' izendatu zituen eta beherala atzeman zuen hori hemengo ordezkariak. Adiskidetzeko agiria sinatuta, ongietorri afaria egin zieten. Mila lagunetik gora bildu zi-

ren. Tartean hemen jaio eta orain bertan dauden idiazabaldarrak: Zabaraingo Joakin eta Rosario eta Antton Altolagirre. Horiekin batera Argentinako beste hainbat herritatik etorritako euskaldunak ere bildu ziren.

Bertako ohiturak eta kultura ezagutzeko aukera izan dute. Baita bi herrien arteko kultura elkartzeko ere. Villamarian (Idiazabaldik 70 km.ra) dagoen Euskal Etxean, Euskal Herrian Udalak duen zereginari buruzko hitzaldia eman zuten hemendik joandakoek. Idiazabalen bertan Kordobako Gobernadorea (hemengo Diputatu Nagusiaren parekoa) ezagutzeko aukera izan zuten. Argentinan sortutako Idiazabal Fundazioko ordezkariekin bilera ere egin zuten hemengo ekonomiaren martxaren berri emateko.

Irailaren 12a, Argentinako Idiazabalgo jaietako egun handia izaten da. Demetrio Jauregialzoren oroigarria inauguratu zuten egun horretan Idiazabalen. Ikurriña eta Argentinako bandera bi herrien arteko loturaren lekuko. Hemendik joandako ordezkariak festa eguneko ekitaldi

## Pilar-Enea

Hainbat hilabeteetako lanaren ondoren, Pilar-Eneako lanak bukatuta daude. Inaugurazio ofiziala urriaren 21ean, larunbata, egingo da. Aurreko asterako egitaraua ere prestatu du Udaleko Gizarte-Ongizate batzordeak. Ekitaldi gehienak Pilar-Eneako ganbaran egingo dira:

- **Urriak 16, astelehena.** 19:30ean Argentinako Idiazabalen izan den ordezkariaren hitzaldia.
- **Urriak 17, asteartea.** 19:30ean, Eguneako zentruari buruzko hitzaldia.
- **Urriak 18, asteazkena.** 19:30ean, Hirugarren adinekoei zuzendutako hitzaldia.
- **Urriak 19, osteguna.** 20:00etan karta eta toka jokuko jubilatu txapelketako finalak.
- **Urriak 20, ostirala.** Iluntzean, musika eta jubilatuen txapelketetako sarien banaketa.
- **Urriak 21, larunbata.** 12.00etan Inaugurazio ekitaldia eta lunch-a.

**Oharrak:** Aste guztian zehar arratsaldeko 5etatik 7ak bitartean Pilar-Enea zabalik egongo da herritarrek ikusi ahal izateko. Ganbaran herritarrek egindako eskulanen erakusketa egongo da.

## Jubilatu eguna

Igande honetan, urriak 8, ospatuko da jubilatuen eguna. Eguerdiko 12,30etan Meza izango dute eta 14:00etan bazkaria Olaberriako Arrieta jatetxean.

## Gazta txapelketa

Euskal Herriko gazta txapelketa Idiazabalen egingo da urriaren 29an. Urtero Hego Euskal Herriko herrialde batean egiten da lehiaketa hau. Duela lau urte ere Idiazabalen egin zen.

## Silo-bolen plastikoa

Goimen Elkartek, silo bolak egiteko erabiltzen diren plastikoen bilketa abian jarri du berriro ere. Hileko hirugarren asteartean egingo da bilketa. Idiazabalen ondoko lekuetan utzi daitezke: Olazagibel, Olariaga, Urrutikoetxe, Gurutzeta eta Korta baserrietan, Katea auzoan eta Benta Txikin.

guztietan hartu zuten parte. Idiazabalgo egonaldia herri bazkariarekin bukatu zen.

Idiazabalgo bisita bukatuta, Buenos Aires eta Iguazun izan dira idiazabaldarrak. Antton Irizar alkateak Fernando de la Rúa Argentinako presidentearekin biltzeko aukera izan du. Bisita bukatuta, etorkizunera begira jarrita bi herrien arteko lotura sendotzen hastea da orain batzuren eta besteen helburua.

## Adiskidetzeko agiria

Bi elkarten arteko adiskidetzeko, Euskal Herriaren eta Ar-

gentinaren arteko lotura afektiboa, inmi-granteetan bidez sortutako lotura eta Demetrio Jauregialzo Gipuzkoako idiazabaldarrak herri hau sortzerakoan hasitako harremana kontutan hartuta. Bi herrietako ordezkariak zera aldarrikatzen dugu: Idiazabal (Euskal Herriko, Gipuzkoakoa) eta Idiazabal (Argentinako Kordoba probintziakoa) adiskidetzeko herri. Honenbestez bi herrien arteko adiskidetzeko berretsi nahi dugu, aurretik, kultura, gizarte eta ekonomi alorrean elkarlanean aritzeko.

*Xabier Urteaga*



## Ehungintza ikastaroa

Datorren astetik aurrera ehungintzako ikastaroa martxan jarriko da, beraz oraindik apuntatzeko aukera dugu, astelehenean, urriak 9, arratsaldeko 6etan Ehungintzako Tailerrean bertan edota Udaletxean 943 801351 telefonora deituz.

Apuntatu aurretik tailerra ikusi nahiko lukeenak, urriaren 9an, arratsaldeko 18:00-etan joan daiteke tailerra ikustera.

### Eskularen tailerra

Izenematea irekita dago eta bilera datorren asteazkenean, urriak 11, eguerdiko 14:30-etan Kultur etxean egingo da. Ordu horretan izena ere eman ahal izango da.

### Kultur etxeko giltzak

Kultur Etxeko giltzen erabiltzaileei jakinarazi nahi zaizue, berehala zenbait giltza aldatu egingo direla eta giltza berriak emateko asmoz, Udaletxera gerturatu behar duzuela zein gelatako giltzak behar dituzuen adieraziz, edota 943 801351 telefonora deitu (Eduarne).

### Nafarroa Oinez 2000

Urriaren 22an Zizur Nagusian izango den Nafarroa Oinezera autobusez joateko izenematea Udaletxean edota Udal Liburutegian egin daiteke. Prezioa 700 pzt.

Esan, autobusean joateko lehentasuna Zegaman errolatuek dutela eta tokirik ba-

### Olaran auzoko etxebizitzak

Olaran auzoan eraikiko diren babes ofizialeko etxeetan apuntatu direnen onartu eta baztertuen zerrenda onartuta dago.

17 etxebizitza hauetarako 31 eskaera egin dira Udaletxean eta onartu eta baztertuen zerrendak onartuta daude. Bestalde, 2000ko urriaren 2an egindako Bilkuran, etxe horiek eraikitzearen adjudikazioa ere egin zuen Udalak eta Saiatu S.A. enpresari eman zaio hauek eraikitzearen lana.

### Otzaurteko bentan birgaitze lanak

Otzaurteko Bentak ere zenbait berrikuntza egiteko asmoa agertu eta, Udalak dagokion baimena luzatu dio. Birgaiteta, beheko solairuan eta lehenengoa ere burutuko da, goikoan nekazalturismorako gelak prestatuko direlarik eta, jatetxea eta edaritegia ere birgaituak izango direlarik.

lego kanpokoak ere onartuko direla. Horretarako kanpotarrek ere izena eman behar dute kanpokoak direla adieraziz.

ren prebentzioari buruzko hitzaldia izango da urriaren 19an, arratsaldeko 6,30etan, Kultur etxean. Hitzlaria: Enrique Peiró.

### Hitzaldia

Gripearen aurkako txertaketa kanpainaren barruan, gripea-

*Eduarne Albizu*

## Ama Birjinaren agerpenari buruzko filma grabatzen ari dira

'Visiones'. Horixe izango da Manuel Gutierrez Aragon zine zuzendariaren azken filmaren izena. II. Errepublikara garaietan Ezkion agertutako Ama Birjinaren inguruko istorioa kontatzen da.

1931-1933 urte bitarteko Ezkiora egingo dute beraz salto. Nafarroan eta Gipuzkoan,

Elduain aldean, ari dira grabazio lanetan.

Punta-puntako aktoreak

ari dira lanean: Fernando Fernan-Gomez, Eduardo Noriega, Karra Elejalde, Enma Suarez eta Ingrid Rubio. 460 milioiko aurrekontua du filmak.

## JUAN KAR

- \* Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
- \* Parket ezartzeak

☎ 943 73 19 45 - 639 96 28 50  
San Inazio, 42-2. ez. LEGAZPI

## Goierrri Bus

Segurtasun eta kalitatezko zerbitzua

Tel.: 943 72 52 50

Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak  
19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak  
Literadunak komunarekin





## ZINEA

## goieniz

### GOIENIZ:

Urriak 19, 'Ghost Dog.  
El camino del Samurai',  
21:00etan, Usurbe  
Antzokian.

### BEASAIN:

'El hombre sin sombra'.  
Ostirala 6: 22:15  
Larunbata 7: 22:15  
Igandea 8: 17:00 - 19:30 -  
22:15  
Astelehena 9: 19:30-  
22:15

### ORDIZIA:

'El hombre sin sombra'.  
Ostirala 6: 22:15  
Larunbata 7: 22:15  
Igandea 8: 16:45 - 19:30 -  
22:15  
Astelehena 9: 19:30-  
22:15

'Ghost Dog.  
El camino del Samurai'  
Jim Jarmusch  
(EEBB-FRA 1999)

'Ghost Dog' goitzeneko gizon hau ez da ohiko hiltzaile profesionala. Beltz handikotea, samurai eta rap kantari arteko itxura lagun, ganbara zahar batean bizi da usoz inguratuta. Uso mezulariak dira bezeroekin harremanetan jartzeko bidea. Urtean behin ko-bratzen du, udazkenaren etorrerarekin bat, eta samuraien arau liburua irakurtzen eta jarraitzen du, zorrotz. Bere lagun bakarra (solaskidea, hobeto esan) frantsesez baizik hitz egiten ez duen auzoko izozki-saltzailea da...

Film hau kaletar 'western' a magia giroko 'thrillerra' eta 'Zen' filosofiaren nahasketa dela esaten badugu ez du inork ezer onik pentsatuko. Beraz, genero hauen parodia eta desmitifikazioa egiten duen komedia zoragarri baten aurrean gaudela esatea hobe.

## musika

### BEASAIN:

Urriak 6, Aupa Navarra jo-ta taldearen emanaldia, Ezkierdi pilotalekuan, 22:00etan.

Urriak 18, Musiketari zikloa: Javier Krahe. Usurbe Antzokian, 21:00etan.

### ZALDIBIA

Urriak 5, Kristina eta Amaia, 23:00etan.

Urriak 8, Etzakit.

Urriak 11, Iraun, Potato eta Papparazzi, 23:30ean.

## bertsoak

### ZALDIBIA:

Urriak 6, Xabier Amuriza, Jesus Mari Irazu, Igor Elorza, Nerea Elustondo, Ainhoa Agirreazaldegia eta Amets Arzallus, 22:30ean, pilotalekuan.

## erakusketak

### BEASAIN:

Urriaren 6ra arte, Irungo Komiki Elkartearen eskutik, komiki erakusketa, Aterpe tabernan.

Urriaren 8ra arte, Kantabriako artista ezberdinen pintura eta eskultura erakusketa, Usurbe Antzokian.

Urriaren 12tik 22ra arte, Ana Maria Perez Morenoren eskultura erakusketa, Usurbe antzokian.

Urriaren eta azaroan, Diskoaren historia erakusketa Zinema tabernan. Sorreratik gaur egunerarte. Garaiko materiala ikusgai.


### ORDIZIA:

Urriaren 31ra arte, Rene-Paul Gelos pintorearen erakusketa, Barrenan.

### ZALDIBIA:

Urriaren 5 eta 8an, 'Ibilaldia ehumetroka' erakusketa, kultur etxean. Ikus Santa Fe jailetako egitaraua.

## IDIAZABALEN APARTAMENTU ETA ETXEBIZITZAK ADARRAKO AUZO ZORAGARRIAN



- 1 eta 2 logelakoak.
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- Garajeak igogailu zerbitzuarekin. 1,4 milioitik aurrera.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia, ... inguruan.

6 azkenak



INMOBILIARIA

**adarra**

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA  
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

686 414 901 - 943 450 721



## hitzaldiak

### BEASAIN:

**Urriak 6**, 'Emakumearen irudia literaturan' hitzaldi zikloa, Udal Liburutegian, 16:00etan. Urriaren 13, 20 eta 27an ere bai.

### ZEGAMA:

**Urriak 19**, gripearen prebentzioari buruzko hitzaldia, kultur etxean, 18:30ean. Hizlaria: Enrique Peiró.

## mendi-irteerak

### Beasaingo mendizaleak:

**Urriak 8**, Ioar (Kodes).

## Yoga Ordizian eta Lazkaon

Ayoc: Yoga klasikoko elkarteak ikastaro ezberdinak antolatu ditu 2000-2001 ikasturterako. Urrian, gorputzaren konszientziari buruzko ikastaroa izango da. Ordizian, Barrenan jauregian, asteartetan, 18:30etik 20:00etara eta Lazkaon, Kiroldegian, asteartetan, 10:00etatik 11:30era.

Ikastaro bakoitza 3.000 pezeta kostatuko da. Izena emateko edo informazio gehiagorako telefonoak: Ordizian, 943889770 (Mari Jose); Lazkaon, 943801427 (Nekane) - 943160934 (Kiroldegia).

## I. Argazki Lehiaketa Peña Beloki Saria

Peña Belokik eta Argizpi Argazkizale Elkartek, Beasaingo Udalaren babesarekin I. Argazki Lehiaketa antolatu dute, argazki eta txirindularitza zaletu guztiei zuzendurik. Gaia Txirindularitza izango da, zuri-beltzean eta koloreetan hiru argazki aurkeztu beharko dira egile bakoitzeko. Teknika eta aurkezteko moduaz askatasun osoa dago. Gehienez ere 30 x 45 cm.ko kartoiez sendotuta. Ez da argazki digitalik onartuko. Lanak jasotzeko azken eguna urriaren 27a izango da. Irabazleari 15.000 pezeta eta garaikurra emango zaio, bigarren saria eramaten duenari 10.000 pezeta eta garaikurra eta hirugarren sailkatzen denak 5.000 pezeta eta garaikurra eramango ditu. Sari berezia emango zaio Joseba Beloki txirindulariari ateratako argazki onenari. Aurkezten diren argazkiekin erakusketa antolatuko da azaroaren 16tik abenduaren 30era. Sari banaketa abenduan egingo da.

## Beasaingo Argazkigintzako IX. Rallya

Argizpi Argazkizale Elkartek eta Beasaingo Udaleko Kultur Batzordeak antolatuta, urriaren 29an jokatu da Argazkigintzako IX. Rallya. Lanbidez argazkilariak ez diren zaletu guztiek izango dute parte hartzeko aukera. 16 urte bitarteko gaztetxoentzat atal berezi bat sortu da aurten. Egun osoko rallya izango da. Izenemateak, egun berean egin beharko dira, goizeko 9etatik 10etara eta arratsaldeko 14etatik 14:30era, Urbieta Arte Plastikotarako Zentroan.

Gaia, argazkilariek ez dute aurretik jakingo, egun berean, goizean, zozketa bidez jakingo da gaia. Partaide bakoitzari karrete bat emango zaio. Egun berean entregatu behar dituzte karreteak. Partaide bakoitzak gai bakoitzetik diapositiba bat aukeratu beharko du azaroaren 2 eta 3an, 19:00etan Urbieta Zentruan. Lehen sarituak, Fujifilm saria, 20.000 pta eta garaikurra eramango ditu, 2. sarituak 15.000 pta, eta 3. sarituak 10.000 pezeta. Herriko edo elkartearen lehenari, 10.000 pta eta garaikurra emango zaizkio. Gaztetxoentzako sariari berriz, argazki materiala eta garaikurra. Sari banaketa eta aukeratatutako diapositiben proiektzioa, azaroaren 12an 20:00etan egingo da Beasaingo udaletxean.

## GOARDIAKO FARMAZIAK



**Astegunetan:** Urbizu

(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

**Urriak 7-8:** Azpilikueta

(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 88 01 52.

**Urriak 14-15:** Arriola

(Plaza Nagusia - Ordizia). 943 880628.

## KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI

## IKASTEK AKADEMIA

ikastekakademia@latinmail.com

Joan Iturralde, 5

BEASAIN

☎ 943 160 120

Goierriko akademia integral bakarra hezkuntzako profesionalek zuzendua

### Tailerrak

6-14 urte

14-18 urte

- ✓ Ortografia, kaligrafia
- ✓ Irakurmena, idazmena
- ✓ Testu komentaketak
- ✓ Matematika

### Eskola laguntza

- ✓ Ikasketa maila guztiak
- ✓ Matematika, fisika, kimika
- ✓ Lengua, euskara, ingelera
- ✓ Marrazketa, latina...
- ✓ Unibertsitate-maila, zikloak

**GOISYSYSTEM**

Informatika aplikazioak



### ✱ 2000-2001 IKASTURTEA

- WINDOWS 98
- WORD
- EXCEL
- AUTOCAD
- INTERNET

**Ikasle bakoitzeko ordenadore bat**  
Talde txikiak: 5 pertsona gehienez  
Plaza mugatuak

### ✱ Ordenadore muntaia eta salmenta

Joan Iturralde, 1

☎ 943 88 79 14 - 943 16 04 01

BEASAIN



# Debaldeko iragarkiak

## Etxebizitzak

### salgai

➔ Etxebizitza salgai Legerretan. Dena berriua. 943806404.

➔ Etxebizitza salgai Idiazabal. Berria, 70 m<sup>2</sup>-koa. Ekipatua. 627869700.

➔ Lazkaon pisua salgai. 90m<sup>2</sup>-koa. 649035311.

➔ Lazkaon pisua salgai. 80m<sup>2</sup>-koa eta erabat erreformatua. 943881213 - 600432352.

### konpartitzeko

➔ Madrilen pisua osatzeko jendea behar da. 914595390.

➔ Neska edo mutil bat behar da, euskalduna, Bilbon pisua osatzeko. Itziar (943888508) - Ainhoa (943886314).

➔ Pertsona bat behar da Leioan pisua osatzeko. Banakako gelak eta unibertsitateetatik hurbil. 943885114.

➔ Jendea behar da datorren ikasturtean Zaragozan pisua osatzeko. 943806010.

➔ Pertsona bat behar da Bilboko Alde Zaharrean pisua osatzeko. Maider (943883880). Amagoia (943885587).

➔ Pertsona bat behar da Salamankan pisua osatzeko. 943651358.

### errentan

➔ Urbasa ondoan etxea alokatzen da, asteburu edo zubieta-ko. Handia eta guztiz hornitua. 948 539381.

➔ Pisua hartuko genuke alokairuan Goierri. 943-187704 (Ana) edo 646-233429 (Oihana).

## Debaldeko iragarkiak

GOIERRITARRA aldizkariak eskaintzen dizun doaneko tarte honetan iragarkiren bat jarri nahi baduzu, deitu 943-889612 telefonora. Edo nahiago baduzu, faxez (943-882719), postaz (Ordiziako 124 posta-kutxa), edo posta elektronikoz (goierritarra@topagunea.com) bidali zure mezua.

Aldizkari honek ez du sail honetan argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitzkeen operazioen erantzukizunik.

## Ibilgailuak

### salgai

➔ Seat Malaga 1.500 salgai. Igogailu elektriko, itxitura zentralizatua, aluminiozko llantak. Prezio interesgarria. 655740571.

➔ Renault 9 TS autoa salgai. 80.000 km. Betti garajea edukita-koa. 100.000 pezeta inguru. 943027075.

➔ Ford Scort 1.600 salgai. Diesela. Prezio oso interesgarria. Patxi. 655740571.

➔ Cady motoa salgai. Beltza. 25.000 pezeta. 943162510.

➔ Rieju First ziklo-motorra salgai. 50 cc-koa. 20:00etatik aurrera deitu. 943884423.

➔ Ford Orion 1.4CL salgai, SS-Z. Prezio eta egoera onean. 943800108.

➔ Land Roverra salgai, 88 modelo, motza. SS-N matrikulduna. 943800359.

➔ Seat Ibiza TD salgai. SS-AT matrikulduna. 686261210.

➔ WW California Coach furgoneta salgai. Diesela. Kanpinera ekipatua: sukalde, hozkailua, bi ohe, aulki mugikorak, irratikaseta, 4 baffle.... 74.000 km. 943552453.

## Bestelakoak

### salgai

➔ Jangelako altzari zaharrak salgai: taila-tutako 2 komoda eta mahaia 6 aulkirekin. 639779592.

➔ 2 sehaska handi, mahaia eta apalak sailgai. Sehaskak handiak dira, muelizko koltxoidunak. Izarak eta koltxa ere salgai. Guztia 60.000 pezetan. 943888541. 21:30etik aurrera deitu.

**VOLVO**

**TOYOTA**



**ŠKODA**

Volkswagen taldea

**ANZIZAR, S.A.**

**Autoen salmenta  
Mekanika eta  
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a  
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04  
BEASAIN

**LEKIM**  
HAROTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK  
ALTZARIAK NEURRIRA

Ibabe Industrialdea, 11 pab. ☎ 943 16 12 83  
**LAZKAO** ☎ (mugik.) 608 - 61 95 01

**Lirain**

*Lurrindegia eta opari gaiak*

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN  
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

**HORTZ KLINIKA**



**Silvia Miras Casasayas**  
Odontologoa. 649 koleg.

**Implantologia  
Estetikazko odontologia  
Haur odontologia  
Helduen odontologia**

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.  
☎ 943 88 92 87 **BEASAIN**



➔ Merkantzi garraio-  
rako tarjeta salgai.  
943180324.

➔ Sua pizteko egu-  
rra, txikitua, salgai,  
zakueta. Etxeetara  
eramaten da. Bulego  
ordutegian deitu.  
943882695.

➔ Pigin akordeoia,  
42-B, salgai. Erdi mai-  
lako ikasketetarako  
egokia. Jabier.  
943465724.

➔ Pentium II ordena-  
dorea salgai. 350 mh.  
Philips monitoreak. Te-  
klatua. Baffle estereoak  
(40 w). Kanpo mode-  
na. Acer vsb skanerra.  
Cannon inpresora.  
Windows 98, Office  
2000, 3D tarjeta, aze-  
leragailua... 10 joko.  
200.000 pezeta gutxi  
gora-behera. Oso ongi  
zaindua. 619749637.

## Animaliak

### opari

➔ Katakume siame-  
sak oparitzen dira.  
943885349 (Dolox).

➔ 10 hilabete dituen  
pastor aleman arraza-  
ko txakurra oparitzen  
dut. Josune.  
943806048.

### salgai

➔ Cocker eta boxer  
arrazako txakurkume-  
ak salgai daude. Pede-  
greearekin.  
696057346.

## Lana

### eskaerak

➔ Ordiziako taberna  
baterako sukaldari la-  
guntzailea behar da.  
943160471.

➔ Ileapaintzaile bat  
behar da, Arrasate in-  
guruan. Esperientzia-  
duna. Epe luzerako  
lana. Lan orduetan  
943792259. Gauetan,  
943770056.

➔ Mutil bat behar da  
igeltseritza lanerako.  
943889576.

➔ Emakume euskal-  
dun bat behar da etxe-  
ko lanak egin eta haur  
bat zaintzeko.  
943880845.

➔ Seguran pertsona  
bat behar da igande  
arratsaldeetan tabernan  
lan egiteko.  
943800251.

➔ Sukaldari bat be-  
har da asteburuetara-  
ko. 943886243.



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua  
Eusko Jaurlaritza

**OFIZIAL LAGUNTZAILEA**  
Goierri. Erref.: 37806/7

**AUTOEN MEKANIKO ELEKTRIZISTA**  
Goierri. Erref.: 38571/2

**BILTEGIZAINA**  
Goierri. Erref.: 39298/2

**OFIMATIKA IRAKASLEA**  
Goierri. Erref.: 39312/1

**IGELTSEROA (1. ofiziala)**  
Donostia. Erref.: 38750/4

**MUNTATZAILE MEKANIKOA**  
Tolosan. Erref.: 38898/3

**ADMINISTRARIA**  
Donostia. Erref.: 39020/5

**AUTOCAD IRAKASLEA**  
Donostia. Erref.: 39308/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu,  
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.  
Goierriko Herrien Ekintza  
**943 884 401**



**ZEGAMA**  
**OKINDEGIA**

*Eskuz egindako  
ogi naturala*

☎ **943 80 10 66**

**Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA**

### SALMENTA PUNTUAK:

**Beasainen:** Montoia harategia, Erosle, Oskarbi,  
Haritza, Osiña.

**Ordizian:** Altamiran, Martina Bustuntzan,  
Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

**Zegaman:** Kooperatiba, Maria Jesusen denda,  
Arrondo.

**Segura**ko Erosle, **Idiazabal**go Ahizpak eta  
**Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.

**ARRIETA**

**JATE TXEA**

☎ **943 88 00 02 OLABERRIA**

Ezkontzak,  
jaunartzeak,  
bataioak...  
era guztietako  
ospakizunak

**UNTXUNDEI**  
**garajea**

**OSINALDE**  
**karrozategia**

☎ **943 88 28 21**  
☎ **943 16 07 06**  
**ORMAIZTEGI**



Pello Arruabarrena 62 urteko zaldibiarra:

# "Parisen sortu zitzaidan traste zaharrak biltzeko harra"

**G**ure ohitura zaharrei, euskal kulturari eutsi nahi dio Pellok. Hori dela eta, traste zaharrak bildu eta txukuntzen ditu. Jasotakoa erakusten ere aritzen da erakusketa ezberdinetan. Iztueta zaldibiarra jaio zen etxea berritzen ari dira Arruabarrenetarrak eta bertan erakusgai jartzeko asmoa daukate, urteetan bildutakoa. Iazko irailean, lihoa erein zuen. Orain haria egiten ikasi nahi du. 1850.az geroztik ez omen da hemen lihorik egin.

62 urte ditu Pello Arruabarrena zaldibiarra. Berak zentzumena duenetik, gure kultura beti zapaldua ikusi duela esan digu. "Gure kulturari burla egiten zioten, hankaz gora joan zen. Sinistatari egin ziguten gainera gure kulturak ez zuela ezer-tarako balio".

Parisa egin zuen bidaia batean sortu zitzaion traste zaharrak biltzeko harra. 18 urtera arte artzain ibili ondoren, CAFen hasi zen lanean. "Zaldibian autobus linea CAFeko langileok sortu genuen. Segundako karneta neukan nik eta bilera batean txofer nik izan behar nuela erabaki zuten. Bi Pello ibiltzen ginen txofertzan".

Frantzira bidaia egiteko agindua etorri zitzaion. Chamonix eta Mont Blanc aldera lehenengo eta gero Parisera. "Donostiara nondik sartzen zen ere ez nekien, baina aurrera. Bueltakoan Parisen sartu behar genuela eta hara

joan ginen. Eiffel Torrera joan behar genuen. Bologne basoa ikusten genuen baina ezin iritsi. Basoa bistan genuela 4 ordu pasatu genituen iristen. Museo batean sartu ginen eta hemengo bi gauza zeuden erakusgai. Jendeak arreta handiz begiratzen zien. Hantxe sortu zitzaidan harra. Harrezkero beti biltzen eta biltzen aritu naiz. Baina diru asko behar da".

Orain dela 30 urteko istoriotxo bat gogoratu digu Pellok: autobusez Elizondora egin zuen bidaia batean, 3.000 pezeta balio zituen traste zahar bat erosi zuen. Hileko soldata 4.000 pezeta-koa zuen.

13 urte pasatu zuen autobus gidari lanean, egunik jai hartu gabe. "Beno, Tolosako koartelean aste bate pasatu nuen. Ederrak hartu genituen! Sargento Panizo zegoen. Hark hala esan zidan: ustedes ya pueden gritar Gora Euskadi, pero eso de As-



katuta... Vais a tener iturriña para toallas".

## Traste zaharrak

Baserrietan eta txatarrerietan aritzen da traste zaharrak biltzen baina gaur egun diru asko behar omen da; lekua ere bai. Iztueta jaio zeneko etxea erosi eta berritzen ari dira piskanaka. Harriak menditik ekarri, garbitu eta piskanaka jartzen ari dira. Han eta hemen egur zaharrak aurkitzen. Gauza zaharren erakusketa jarri nahi dute etxea piska bat txukuntzen dutenean. "Dirulaguntzarik ez digute jaso-tzen eta norberak egiteko asko da".

Era guztietako trasteak ditu bilduta Pellok. Artzantza-rekin lotutakoak asko ditu bere bilduman. Bere aitona-ren abarka bat badu. "hanka hutsik ibiltzen zirela esaten

ziguten eta ez naiz harritzen abarka hau ikusita", dio Pellok. Gogor-gogorra, zorua koskaz betetakoa da. "Eurria egiten zuenean ibiltzen ziren ondoen, bigundu egiten ziren eta".

Ardientzako kuttunak, Olaberitik ekarritakoak. "Eskapularioak bezala ziren, ardi onentsuenari jartzen zitzaion". Ardiari hanka puskatzen zitzaionean, arrautza zuringoa jartzen zioten, gogortu egiten baitzen. Babesteko trapu bat jarri eta lotuta, igeltoaren funtzioa egiten zuen.

Arantzazuko praileek ere bisita egiten zien artzainen, gaztak eskatuz. "Gazta ona emanaz gero, eskapularioa ematen zioten artzainei; txartxeagoa emanda estampa; eta gaztarik eman ezean... Prailea ikusten genuen

**ESTANKO**

taberna

**Pintxo bereziak**

*Festak ondo pasa*

© 943 88 28 65

Sta. Fe, 15

ZALDIBIA

**GANBO, S.A.**



**ANDERE**  
lenceria

☎ 943 88 35 12-16 Faxa: 943 88 35 12

Elbarrena Auzoa, 2

ZALDIBIA



Zaldizurreta K.

BEASAIN



nean, askotan izkutatu egiten ginen. Baina haiek ere ikasi zuten eta ardiak jaiitzen ari- tzen ginenean etortzen hasi ziren. Eman egin behar”.

Gaur egungo aurrerapenik ez, eta kinka erabiltzen zuten argia egiteko. Kinka-zuloa izaten zuten txabolan, haize- ak itzali ez zezan. Iztueta- ren etxean ere egin dute kinka zuloa. Ardi-esnea pasatzeko ontzia ere badauka gordeta Pellok. Asunak jartzen zituz- ten ontzian. “Ardi-esneak beti ilea edukitzen du eta pa- sadore normaletan, askotan, pasatu egiten da baina asu- netan ez”.

## Ostia moldea

Ostia egiteko moldeak ere baditu. Lazkaon, urte batean, egin zituzten ostiak eta baita jendearen artean banatu ere. “Garai batean zerutik ekar- tzen zituztela esaten zitzai- gun. Moldea esku artean nuela, egiten ikastea pentsa- tu nuen. Barkillero batenga- na joan eta ikasi egin nuen. Ogi irinarekin oreka egin eta ez dauka beste misteriorik”.

Hauek adibideak besterik ez dira. Pello Arruabarrenak duen altxorra ikusi nahi iza- nez gero, Zaldibiako Ardiki egunean erakusgai izango di- ra.

## “1850. urteaz geroztik hemen ez da lihorik egin”

Garai batean etxean egiten zen arropak egi- teko haria. Lihoarekin edo linoarekin egiten zen. Pello Arruabarrenak aurkitutako aztar- nei jarraituz, 1850. urteaz geroztik hemen ez da lihorik egin. Oso landare dotorea omen da, lore urdin-urdinarekin. Irailean ereiten da lihoa eta iazko irailean, Pellok, esperimntua egin eta lihoa erein zuen. San Joanetan bildu eta lehortzen dauka orain. Zuztarretik ebaki behar izaten da. Pello Arruabarrenak libu- ruetan ikasi du lihoaren prozesua. Honela la- burbildu digu zaldibiarrak.

Behin ebakita, sortak egiten ziren. Azaoa deitzen zaio sorta horri. Jarraian, karrama- rrekin hazia kentzen zitzaion. Hazia hu- rrengo urterako gordetzen zuten. Ondorengo pausua, beratzearena izaten zen. Lino-putzu- ra eramane eta 6 egun eta 7 gauez beratzen edukitzen zuten. Ondo beratutakoan, zelaian ondo lehortzen jartzen zuten. Ogi egiteko labean ematen zioten azken lehortua. Zaldi- bian bada lino-putzua eta garbitu eta berres- kuratzeko asmoa daukate Arruabarrenata- rrek.

Hurrengo urratsa, trankatu edo zanpatzea- rena izaten zen. Batzuk mazoarekin jotzen zuten, beste batzuk trankatzeko makinare- kin. Pellok badauka trankatzeko makina. Su- gatzu ondoren, txantxarratu egiten zuten lihoa, hau da, kardatu. Haria egiteko prest egoten zen dagoeneko lihoa.



Haria eginda, ehuna egiteko lantokietara eramaten zuten haria. Mandoan eramaten zuten, zakuetan. Itsasondan ba omen zegoen horrelako enpresaren bat. Kantzontziloak, alkandorak, eskutrapuak... denetariko arro- pak egiten zituzten. Dena den, lihoa sailkatu egiten zuten, kalitatearen edo laztasunaren arabera, produktu ezberdinak egiteko.

Pello Arruabarrenak lihoa egin du, baina orain haria egiten ikastea falta zaio. Bizkaia aldean ba omen da jakitunen bat eta Pellok badu ikusi eta ikasteko asmoa.

## Demonio belarra

Lihoak garrantzia handia izan zuen garai ba- tean. Pellok jakin duenez, etxeko alabak 13 urte betetzen zituenean, soro pusketa bat uz- ten omen zion aita lihoa erein eta bere arre- oa prestatzen joan zedin.

Dena den, Elizaren oso gustukoa ez omen zen lihoa. “Demonio belarra deitzen zioten. Neska-mutilak elkarrekin aritzen ziren lane- an eta Elizak ez zuen ondo ikusten neska- mutilak elkarrekin egote hori”.



**ZALDIBIAKO  
UDALA**

**ZALDIBIKO  
HERRIAK  
HERRIKO JAIETAN  
PARTE HARTZEKO  
GONBITEA EGITEN  
DIZUE**



**Loradenda**

**Santu Guztien egunerako enkarguak hartzen ditugu**

- ✓ Ezkontzako lora sortak
- ✓ Kotxe eta eliz apainketak
- ✓ Koroaiak
- ✓ Lora apainketa mota guztiak
- ✓ Larunbat arratsaldetan zabalik

☎ 943 889 883  
**Geltokiko kioskoa ORDIZIA**





## Zaldibiarrek Santa Fe jaietan

70ko hamarkada hasierako argazkia da, Santa Fe jaietan ateratakoa.

**Zutik, ezkerretik eskubira:** Mikel Arrese, Jose Arrese, Jaime Zubeldia, Julian Arrese, Felipe Erauskin, Bixente Zubeldia, Matias Mendizabal, Jose Erauskin, Iñaki Arrese, Angel Imaz eta Xalbador Garmendia.

**2. lerroan:** M. Jose Etxeberria, M. Rosario Iruin, Margari Imaz eta Mila Erauskin.

**3. lerroan:** Ana Isabel Iturrioz, Alizia Imaz, Maribi Garmendia, Kristina Irastorza, Lolita eta M. Angeles Zubeldia.

**Aurrean, txistulariak:** Tere Irastorza, M. Dolores Etxeberria, Jose Agustin Olano eta Xalbador Garmendia.

## PIII Harategia

*Mondejuetan berezitasuna*

Santa Fe Kalea **ZALDIBIA** Tfnoa.: 943 88 28 68

## MILA ARRANDEGIA



*Zaldibitarrek zori onduz  
Sta. Fe festa hauetan*

☎ 943 88 90 84

Sta. Fe Kalea **ZALDIBIA**



**ARRESE**  
**Jatetxea**

*Festa onak opa dizkizuegu*

☎ 943 88 17 14 **ZADIBIA**



## LAZKAO-ETXE

● JATETXEA ASTEBURUETAN ZABALIK

● NEKAZALTURISMOA

→ 4 logela, beren bainugelekin

→ Gosari, bazkari eta afariak

☎ 943 88 00 44

**Aiestaran erreka**

**ZALDIBIA**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza  
obra social*





SUKALDEKO  
ALTZARIAK

ELEKTRAGAILUAK

ILUMINAZIOA

INSTALAKUNTZA  
ELEKTRIKOAK



**Suquia**

☎ 943 88 23 00 ☎

ERAKUSKETA:

K. Nagusia, 10 ORDIZIA

 **Goierritarra** rekin

**300.000**

**pezetako**

**BIDAIA!**



**Goierritarraren aldeko errifak erosiaz  
eman laguntza hamabostero Goierriko  
berri ematen dizun aldizkariari**

**Errifak Goierri guztian salgai**



# **FOTO ORDIZIA**

## **ARGAZKI DENDA**

DOMINGO UNANUE, 1 ORDIZIA  
(GELTOKIAREN AURREAN)



**Kodak**

**PRODUCTOS...**

**EXPRESS COLOR**

**ERREBELATUA  
ORDUBETEAN**

**9x13 10x15 13x18**

**ERREBELATUA  
24 ORDUAN**

**9x13 10X15 13X18**

**BETI KODAK PAPER  
ETA KIMIKOAK**

**NEGATIBORIK  
GABEKO  
ARGAZKIAK**

**EDOZEIN NEURRITIK  
HANDITZEAK ETA  
TXIKITZEAK**

**KARNETEKO  
ARGAZKIAK**

**6 argazki instantean**

**EPSON KONTSUMIGARRIAK**

**✕ INPRESOREENTZAT TINTA**

**✕ PAPER BEREZIAK**

**TDK**

**AUDIO ETA BIDEO ZINTAK**

**AUDIO: 60'→145 pta. 90'→165 pta.**

**BIDEO: 120'→430 pta. 180'→450 pta. 240'→540 pta.**

**CD HUTSAK**